hiruka
191. zenbakia
2023ko urtarrila

INFLAZIOA GUREAN

Erosketa-orga betetzea, ia ezinezkoa

HIRUKAren Telegram kanala

Uribe Kostako informazioa zure eskura!

hiruka

Aurkibidea

4 **Puntua eta kontrapuntua**

5 **Erretratua**

6 **Inflazioa apaldu egin den arren, elikagaien prezioek nabarmen gora egin dute**

10 **Herriz herri**

18 **Hezkuntza berezia**

24 **Berbetan: Joanes Igeregi, hizkuntzen eta ekologiaren ekintzailea**

28 **Uribe Kostako agenda**

29 **Mundukatuak**

30 **Lehen/orain eta Uribitakora**

31 **Musikhariak: Blessure**

32 **Arrate Izagirre, Eten / Zaldi Ene proiektua**

33 **Roge Blasco kazetariaren egitasmo berriak**

34 **Kirolak**

35 **Jose Angel Rivera eta Aitor Rivera, judo-borrokalariak**

36 **Iritziak eta Horoskopoa**

37 **Usategi**

38 **Zinez diot eta Irakurrian**

39 **Pil pilean**

40 **Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak**

42 **Faceguk**

43 **Zozketak**

5

«Ibarretxe anaien lana omendu nahi dut»

6

Zelan eragin du inflazioak gure eguneroko bizitzan? Zer garestitu da gehien?

24

«Oinarriak jarri behar ditugu euskararen erreprodukziorako»

35

Aita-semeak, Munduko Judo Txapelketan batera

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Itsaso Paya, Gorka Aurre, Bea Sever, Aritza Bergara, Asier Barruetabeña, Josu Esnaola, Maitane Nerekan, Joseba Santxo Iñigo Esteban Lezkano eta Arantxa Urretabizkaia-Pamiela

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak

Getxo bizi ezazu

Leioa Idala-Ayuntamiento Euskara Zerbitzua

Berangoko Udala

Barrikako Udala

Gorlizko Udala

Urdulizko Udala

Lemoizko Udala

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Kopia garestia

ITXASO PAYA RUIZ Sortzailea

Hezetasuna auzoko algortarra naiz, hala ere, beti gustatu izan zait Berango; aldaparen inertziagatik edo Martutene auzoan bizi den munduko dantza irakaslerik onenaren eraginagatik.

Berezia da Berango eta berangarrak. Aspaldi, herriko hainbat gazte elkartu eta ekimen bat sortu zuten: Sartén Sin Mango Eguna. Gurdi bat hartuta herria osorik zeharkatu ohi zuten kalejiran Berangutanari jarraika, beti ere, bidaia musikaz, bertsoz, potez, pintxoz zein erronkaz girotuta. Ospe handia hartu zuen ekimenak; zoritxarrez, pandemiaz geroztik, antolatzaileek ez dute berriz antolatzerik izan. Noski, haien denbora librean eta haien borondatez aritzen ziren. Eskerrak militantziari.

Orain dela hilabete gutxi batzuk, antza, diru partida bat aurkitu zuten Berangoko agintariek (hauteskundeak baino lehen, kasualitatez) poltsiko ezkuturen batean. Orduan, ideia bat izan zuten:

A. Zergatik ez Sartén Sin Mango Eguna berreskuratu eta aurreko urteetan haien borondatez lanean aritu diren herritarrak deitu?

B. Zergatik ez herriko gazte borondatetsu bat fitxatu berak egin dezan guk egin beharko genukeen Sartén Sin Mangoren kopia garestia?

A aukera ez da zuzena.

Burmuina landu edo galdu

GORKA AURRE URTZAA Irakurketan aditua

Irakasleei dagokie ume bakoitzak dituen dohain edota gaitasun jasoak azaleratu eta hobetzen irakastea, zoritxarrez horrelakorik gutxitan gertatzen da.

Gazteen hezkuntzari dagokionez, zoritxarrez, egokitasunez, probetxu handiz, eraginkortasunez eta antolaketa egokiz ikasten irakatsi baino nahiago izaten da azterketak gainditu eta ikas-prozesua arazo handiegirik gabe igarotzea, baina... erreka horrek ur-emari urri.

Gazterik gehienek benetan eleanitzak izatetik oso urruti daude, azken Ebaluazio Diagnostikoak azaltzen duen bezala. Euskarari dagokionez, ahozko erabileran beherakada nabarmena izan da eta are gehiago: gazteen euskaraz idazteko eta irakurtzeko gaitasuna... hutsaren hurrengoa da. Sakon arduratzekoa. Gazteen irakurketa eta ulermena oso txarra dela jakinik egoera horiek eraldatzeko ekintzarik-eza da nagusi eta, ondorioz, emaitzek txarragora besterik ez dagie.

Hondamendi hori egoki bideratu ezean, ikasleengan arazo larri eta ugari sortuko da epe urrian. Egungo gazte ia guztiak, irakurle geldo, ulermen gutxiko, arreta hutsaleko eta irakurketa-ohitura sendorik eza nabarmena duten ikasleak dira. Are gehiago, egoera horrek ez dau epe ertainera bideratuko denaren susmorik txikiena ere, ikasleen eta gurasoen kalte, egonezin eta zorigaitzerako.

Puntua eta kontrapuntua **Prezioen gorakada**

Urtarrileko aldapa

Gaztainak, hator-hator,
turroi ta marketin:
Gabonetan zaila zen
ibiltzea erkin.
Aurten zuhaitz azpitan
pare bat galtzetin.
Dena denean gastu
ta zero etekin,
konformatu gaitezen
maitasunarekin.

UNAI MENDIBURU VALOR
Algorta

Opariak, xanpaina,
errege opila.
Arrazoi duzu, Unai:
a zer gastu pila.
Orain argia eta
petroleo barrila,
prezioek jarraitzen
dute gailur bila.
Ea zelan pasatzen
dugun urtarrila!

PERU VIDAL GURRUTXAGA
Leioa

ALBE
Algortako Bertsolari Eskola

Jone Ibarretxe Artista

«Ibarretxe anaien lana omendu eta aitortu nahi dut»

32 urteko sortzaile erromotarrak *Esto no es Hollywood* dokumentala sortzeko prozesua abiatu du, bere aitaren eta osaben istorioa kontatzeko.

TESTUA: **JULEN NAFARRATE** • ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Badira gure herrian kontatu gabeko istorio ugari. Ospe eta fokuetatik kanpo inurri-lanetan euren ibilbidea egin dutenak, euren sena eta ametsak jarraituz, bestelako asmo edo anbiziorik gabe. Istorio horietako bat aukeratu du Jone Ibarretxe artista erromotarrak bere lehenengo dokumentala zuzentzeko. Eta ez da edozein istorio: Ibarretxe anaiena kontatuko du, bere aita Josemi eta Javi eta Esteban osaben bizitza, hain zuzen ere.

Zinemagaz lotutako ibilbidea egin zuten Ibarretxe anaiek 80ko hamarkadatik 2014ra arte. Jonek nabarmentzen duen bezala, aitzindariak izan ziren Euskal Herrian: «Oso zine berezia egin zuten, umore oso ezberdinarekin. Ez zituzten kanonak jarraitzen, eta agian horregatik ez zuten oihartzun handirik izan». Nerea Falagan sopeloztarragaz batera sortuko du ikus-entzunezkoa, «benetako ikasketa-prozesua izaten ari da», eta orain finantziazioa bilatzen ari dira proiektua gorpuzteko: «Nire motibazio nagusia pertsonala da, eurek egindako lana omendu eta aitortu nahi dudalako. Baina baita ere kolektiboa, Euskal Herriko zinemaren historian ahaztuta daudelako». Ideia horretatik datorkio izenburua dokumentalari: *Esto no es Hollywood*.

Ikus-entzunezkoetan lan egiteaz gain, Jone Ibarretxe artista polifazetikoa da, hainbat musika proiektutan ibili baita: Chalwa Band, Leun, Cecilia Payne... Orain Vulcanizadas taldeagaz lehenengo lana kaleratuko du, blues eta soul doinuekin. Bere alaba bezala, Josemi Ibarretxe ere artista polifazetikoa zen, eta ikus-entzunezkoak sortzeaz gain, Areetako Xake plazako horma-irudi erraldoia egin zuen 1983an. «Ideia berea izan zen, Udalak pintura eta aldamioak bakarrik jarri zituen. Ez dut lortu jakiterik nondik datorren xakearen ideia, eta zoritxarrez aita ez dago gure artean erantzuteko». Inork horren erantzunik izango balu... «hori itzela izango litzateke!». Orain Jone irudia babesteko ahaleginetan ari da, desagertzeko arriskua duelako: «Nire aitak esaten zuena dut gogoan: artista izateaz harro nago, ni hiltzen naizenean nire arteak bizirik jarraituko duelako». ◀

Inflazioa baretu arren, prezioek gora egiten jarraitzen dute

Kontsumorako prezioen indizeak % 5,1ean amaitu du urtea, beheranzko joera konfirmatuta. Hala ere, elikagaiak eta edari ez alkoholdunak, besteak beste, % 15,1 garestitu ziren abenduan aurreko urteagaz alderatuta. Iazkoa azken hamarkadetako urterik garestiena izan da gurean, inoiz ikusi ez diren prezioak utzita. Horri aurre egiteko, askotariko neurriak hartu behar izan dituzte agintariek.

TESTUAK ETA GRAFIKOAK: **IKER RINCON MORENO**

Bizitzaren garestitzea errealitate bat da gurean. Azken hiru hamarkadetako inflaziorik handiena pairatu dute prezioek 2022an, KPI kontsumorako prezioen indizeak urtea beheranzko joeragaz bukatu duen arren. 2021eko udaz geroztik energiaren prezioek izan duten gorakadak, Ukrainako gerrak larriagotuta, produktu eta zerbitzu gehienen garestitzea bultzatu du gurean –baita mundu osoan, orokorrean, ere–. Horren ondorioz, urte arteko inflazioaren datuak % 10etik gorakoak izatera heldu ziren uda honetan Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainiako Estatuan, hamarkadetako handienak.

Urte osoan, hilabeterik hilabetera, denok ikusi dugu nola handitu diren prezioak etengabe; energiarenak –erregaiak eta elektrizitatea– lehenengo, eta gainontzekoak ondoren. Gorakada horri aurre egin guran, Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak askotariko neurriak jarri dituzte martxan hilabeteotan, hala nola gasolinari eta dieselari 20 zentimoko deskontua ezartzea, gasaren garestitzea eteteko «salbuespen iberikoa» izendatutakoa eta garraio publikoaren prezioa erdira murriztea; lehenengo neurria, baina, daborduko bertan behera utzi dute. Bere aldetik, Europar Batasunak, berriz, interes-tasak handitu ditu, besteak beste, herritar askoren hipotekak garestituz aldaera aldakorra dutenen kasuan. Neurri horiekaz guztiakaz inflazioari eustea lortu dute, hein batean behintzat; uztailean goia jo zuen KPIak, % 10,5eko hazkundeagaz EAEn –% 10,8 Espainiako Estatuan–; abenduan, berriz, INE Espainiako estatistika institutuaren datuen arabera, indizea % 6,5tik % 5,4ra jaitsi zen azarotik abendura gurean, hilabete horretan erregaien merkatzea eta elektrizitatearen prezioaren moderatzeari esker.

Bestela esanda, demagun pertsona batek 1.000 euro gastatu zituela 2021eko abenduan bere hilabeteko gastu guztiei aurre egiteko; bada, urtebete beranduago 1.054 euro ordaindu

behar izan ditu faktura horiek kitatzeko, INE Espainiako estatistika institutuak emandako datuen arabera. Alde hori, % 5,4, da areagotu dena abenduan, batez beste, EAEko kontsumoko ondasunen eta zerbitzuen prezioetan azken urtean, KPIa oinarri hartuta neurtuta.

Prezioen garestitze orokor hori gorabeheratsua izan da 2022an, urtearen lehenengo seihilekoan gorakada bizkor baten ondoren, beheranzko joera hartu duena bigarren partean. Hala ere, ohiko pertsonok ez dugu euste horrek ekar lezakeena nabaritu, inflazioa moderatu arren, elikagaiak, berbarako, % 15,1 garestitu baitira urtebetean batez beste abenduko azken datuen arabera; 2021etik 2022ra gehien garestitu diren produktuak izan dira azukrea (% 73,8); olioak eta koipeak (% 40,4); esnea (% 38,6); arrautzak (% 32,4); patatak (% 23); zerealak (% 21,6); esnekiak (%20,8); eta ogia (% 16,6). Are, elikagai guztiek azken bi hamarkadetako prezio mailarik altuena zuten urtearen amaierarako. Hau da, azken mendeko orga garestienak ordaindu behar izan ditugu abenduan.

Erosketa-saskiaren prezioak marka guztiak hautsi ditu, eta bizitzaren kostuaren gorakadaren buru da, energia-fakturaren eta garraio publikoaren kostuak behera egin duten bitartean. Izan ere, 2021eko abenduan produktu bi horien prezioak maila altuan zeuden, eta nazioarteko merkatuetako lehengaien prezioaren beherakadak eta gobernuek hartutako neurriek eragin dute jaitsiera hori azken urtean.

Kalean galdetuta, argi dago uribekostarrek ere euren azalean pairatu dutela prezioen igoera hori. Berbarako, Jon Ponce algortarrak dioenez, gasolindegietan eta etxeko gasa ordaintzeko fakturetan hasi zuen garestitzea pairatzen, baina, apurka-apurka, supermerkatuan ere nabaritzen hasi zuen gorakada. Gainera, egoera zein den ikusita, ez du uste gauzak baretuko direnik, eta produktuak garestitzen jarraituko direla ziur dago: «Batek daki noraino heldu daitezkeen».

Ildo berean, Luis Mari Sobrevilla erandioztarrak bizitzaren garestitzea nabaritu du azken urtean, «gutxika-gutxika izan da, baina etengabe». Honek, baina, espero du prezioek goia jo izana, «egoera ezin daitekeelako jasangarria izan».

Bezeroen beste aldean dugu Ainara Zarraga okina; dioenez, jendearen haserreari aurre egin behar izaten diote bera bezalako saltzaileek, prezioen igotzea, orokorrean haien errua ez den arren: «Ia egunero igotzen da prezioa; orain bost zentimo jaitsi dute BEZagatik, baina lehen 20 igo zuten. Gainera, guk hori erabaki ez arren, aurpegia eman behar dugu bezeroak kexatzen zaizkigunean, eta gero eta gehiago kexatzen dira».

KPIaren eboluzioa Euskal Autonomia Erkidegoan azken bi hamarkadetan

ITURRIA: **INE**



Baina, zer da inflazioa?

Ekonomian, aldi jakin batean merkatuan dauden ondasun eta zerbitzuen prezioen igoera orokor eta iraunkorra da inflazioa. Prezioen maila orokorra igotzen denean, moneta-unitate bakoitzagaz ondasun eta zerbitzu gutxiago eskuratzeko ahalmena dago. Inflazioa neurtzeko ohiko neurri bat prezioen indizea da, urteko prezioen aldakuntza orokorraren ehunekoari dagokiona; ohikoena kontsumitzailearentzako prezioen indizea da (KPI).

GAINKOSTUEI AURRE EGIN GURAN. Prezioen igoaldi horren ondorioz, familia-unitate batek urtean 830 euroko gainkostua izan du elikaduran soilik 2022aren akabuan. Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Erakundeak igoera horiek kontsumitzaile zaurgarrienetan duten eragina arintzeko neurriak proposatu zituen abenduan, hala nola % 0ko BEZa oinarrizko elikagaietan. Horri erantzun guran, Espainiako Gobernuak hainbat neurri iragarri zituen urtearen amaieran, urtarrilaren 1etik martxan daudenak: BEZa % 4tik % 0ra jaitsi du premiazko elikagaietan, eta % 10etik % 5era oliba-olioetan, hazi-olioetan eta pastetan; 200 euroko laguntzak emango dizkie 27.000 eurorainoko errentak dituzten familiei; eta elektrizitatearen eta gasaren gaineko zergen beherapena luzatu du, baita garraio publikoaren abonuak diruz lagundu ere.

BEZaren murrizketari dagokionez, herritar asko kexu dira emaitza ez dela esperokoa izan, merkatzea ez delako horrenbeste nabaritzen. Berbarako, Leire Tellez algortarrak dio prezioek gora egin zutela zerga hori kendu Aurretik. «Prezioak aldez aurretik igo zituzten, asko gainera, eta beraz, orain ia ez dugu nabaritu beherakada hori», kexu da.

Espainiako Gobernuaren ildo beretik, Eusko Jaurlaritzak premiazko laguntza emango die muturreko zaurgarritasun egoeran dauden 10.000 pertsonari. Hala jakinarazi zuen joan den urtarrilaren 13an Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak. Azaldu zuenez, programa

Elikagaien eta edari ez alkoholdunen prezioen hazkundea Euskal Autonomia Erkidegoan

ITURRIA: **INE**



horrek elikagaietara edo higiene pertsonalerako produktuak eskuratzeko aukera emango die 2.500 bat familiari, 150-300 euro arteko laguntzen bitartez. Horiek, gehienez, hiru alditz banatuko dizkiete urtean, eta txanpon-txartelen eta aplikazio mugikor baten bitartez bideratuko dituzte.

JENDEAREN POBRETZEA. ELA sindikatuaren arabera, baina, neurriok guztiok «antzuak» dira, «ez dutelako ia eraginik izango elikagaien prezioetan». INEren abenduko datuak jakin eta berehala komunikatu batean nabarmendu zuen azpiko inflazioak etengabeko igoerari eusten diola, eta horrek adierazten duela, bere ustez, enpresek kostuen igoera produktuen eta zerbitzuen azken preziora eramaten dutela eta «egoera aprobetxatzen dutela etekinak handitzeko».

UGTk, bere aldetik, azpimarratu du KPIaren «moderazioa» ez dela «erosketa-saskian nabaritu», eta horrek langileen «poltsikoetan ondorio suntsitzaileak» eragiten dituela. Sindikatu horrek ere agerian utzi du, halaber, enpresek «kontsumitzaileari transferitu zizkiotela gasaren prezioaren gorakadak eratorriko gainkostua, eta orain prezio altuei eusten dietela, lehengaiaren kostua murriztu den arren».

Sindikatuokaz bat datoz herritarrak, askok eta askok uste baitute enpresek «marra gorria» igaro dutela. Olatz Izquierdo getxoztarrak dioenez, «puntu batera helduta, pasatu egin direla iruditzen zait; gehiegizkoa izan da eta ez da bidezkoa». ◂

% 5,4

indizeko KPIagaz amaitu du Euskal Autonomia Erkidegoak 2022a, aurreko urtean baino puntu bat gutxiago.

% 15,1

Inflazioa moderatu den arren, elikagaien eta edari ez alkoholdunen prezioak, orokorrean, garestitu dira.

% 73,8

Urtebetean gehien garestitu den produktua azukrea da; hala, batez beste, 50 zentimo gehiago ordaindu behar ditugu kilogramo bakoitzeko.

Gehien igo diren elikagaiak EAEn

Azken hilabetean (abendua)

- Olioak eta koipeak ..... % 9,6
- Zerealak eta deribatuak ..... % 5,3
- Esnea ..... % 5,2
- Arrain freskoa eta izoztua ..... % 3,6
- Esnekiak ..... % 3,5
- Arrautzak ..... % 3,2

Urte arteko aldaketa

- Azukrea ..... % 73,8
- Olioak eta koipeak ..... % 40,4
- Esnea ..... % 38,6
- Arrautzak ..... % 32,4
- Patatak eta deribatuak ..... % 23
- Zerealak eta deribatuak ..... % 21,6

Beste produktu batzuen bilakaera

Azken hilabetean (abendua)

- Tabakoa ..... % 4,9
- Berokuntza, argiteria eta ura .... % 2
- Turismoa eta ostalaritza ..... % 1,1

Urte arteko aldaketa

- Altzariak ..... % 8,9
- Turismoa eta ostalaritza ..... % 6,8
- Etxetresna elektrikoak ..... % 5,3

Getxo Europako araudi berria betetzeko helburua

Udala neurriak hartzen hasi da emisioak murrizteko asmoz

Udalerri jendetsuenetan emisioak murrizteko Europar Batasunak onartutako araudia jarri da martxan urtarrilaren 1ean, eta horri egokitu behar da Getxo.

Besteak beste, Areetako Kale Nagusia erdi oinezko bihurtzeko lanak abiatu dituzte.

Aurten, 2023an, airearen kalitatea hobetu guran, 50.000 biztanletik gorako herriguneetan emisio gutxiko eremuak ezartzeko Europar Batasunak onartutako araudia jarri da indarrean, edo jarri beharko litzateke behintzat. Hala, besteak beste, Getxo neurri horretara egokitu beharko litzateke, baina oraindino Udalak ez du aurreikusi mota horretako guneak sortzea udalerrian. Horren ordez, hainbat neurri abiatu ditu, hala nola abiadura-mugak ezarri, hiri-mugikortasun jasangarriaren aldeko planak onartu eta oinezkoentzako bideak areagotu.

Udalak HIRUKAri jakinarazi dionez, udalerrian dauden isuriak ezagutzeko ikerketa abiatu du tokiko Ingurumen Sailak. Horretarako, enpresa espezializatu bat kontratatzea aurreikusi du, «abiapuntua finkatzeko» eta, hortik aurrera, «ezarri beharreko helburu eta eremu zehatzak finkatuko dira». Hori dena aurtengo lehen seihilekorako izatea espero dute arduradunek, baina, bitartean, bide horretan aurrera egiteko hainbat neurri hartu direla jakinarazi du Udalak.

Orain arte martxan jarritako neurrien artean daude, besteak beste, udalerri osoan 30 km/h-ko abiadura muga ezartzea errepideetan, baita hiri-mugikortasun jasangarriaren plana eguneratzea ere, «mugikortasun iraunkorragoa lortzen lagunduko dutenak». Horrek, arduradunek azaldu dutenez, eragin txikiagoa izango du soinu-ingurumenaren kalitatean, «bidesegurtasuna hobetuz eta trafikoa baketzea sustatuz». Horrez gainera, Udalak gogoratu du Areetako Zugatzarte etorbidea eraldatu dutela, Kale Nagusia erdi oinezkoentzako bihurtzeko lanean ari direla, Algortako Manuel Gainza aparkalekua eraiki dutela eta martxan daudela Areetako Xake plaza egokitzeko obrak. ◂

Getxo GetxoBizi

Bizikletak mailegatzeko udal-zerbitzua martxan jarriko dute berriro

GetxoBizi bizikleta publikoa mailegatzeko udal zerbitzua urtarrilaren 23tik aurrera (astelehena) jarriko dute martxan, base berriak instalatu eta dagozkion probak egin ondoren. Joan den azaroan instalazioak, bizikleta-parkea eta aparkaleku-sistema berritzeko zerbitzua eten ondoren, zerbitzu berriak berrikuntza eta hobekuntza batzuk ezarriko ditu, «udalerrian mugikortasun segurua, jasangarria eta osasungarria bultzatzeko». Edonola ere, zerbitzu hori zubi gisa erabiliko da BizkaiBizi ezarri arte. Aurten bertan jarriko dute martxan hori, Getxo Bilbogaz eta itsasadarraren bi aldeetako beste udalerri batzuekaz lotzeko.

Joseba Arregi Ingurumeneko Hiri Zerbitzuetako eta Ingurumen Kalitateko zinegotziak azaldu duenez, zerbitzu berriak 72 bizikleta mekaniko izango ditu guztira, aurreko zerbitzukoen diseinu desberdina izango dutenak eta erosoagoak eta ergonomikoagoak izango direnak. Mailegu-puntu berberak izango ditu, 13 geltoki, eta ordutegia 06:00etatik 22:30era izango da. Erabilera-kostua ere aurreko sisteman zegoena izango da: egunean 2 euroko oinarrizko tarifa eta 10 euroko urteko abonua (alokairu bakoitzeko gehieneko iraupena 90 minutukoa da bi kasuetan). ◂

Getxo EAEJAren ebazpena

Lope de Vegako udal-eraikinak eraisteko baimena eman dute

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpenak indarrik gabe utzi du Itzubaltzeta/Romoko Lope de Vega kaleko 12 zenbakiko eraikinak eraistea ukatzeko joan den abuztuan indarrean jarri zen autoa. Beraz, azpiegitura horiek botatzeko baimena du orain Getxoko Udalak bertan belaunaldien arteko zentro bat eraiki ahal izateko. Epai horrek, besteak beste, lehentasuna ematen dio «proiektu berriari hasiera eman beharrak ordezkatzen duen interes orokorrari». Udala pozik agertu da ebazpenagaz, baina, horren aurrean, herritarrek manifestazioa deitu dute otsailaren 12rako, domekarako, 13:00etan, Santa Eugenia plazatik abiatuta. ◂

Leioa 2023ko aurrekontua onartuta

Leioako Udalak 44,2 milioi euroko aurrekontua onartu du

Bigarren urtez jarraian, inoizko aurrekonturik altuena onartu du Leioak. Kiroldegi berria eta bidegorri-sarea handitzea nabarmendu dituzte egitasmoen artean.

Leioako Udalak 2023rako 44.293.404,91 euroko udal-aurrekontu bateratua onartu zuen abenduko osoko bilkuran. Horrela, Udalaren aurrekontua 42.826.794,52 eurokoa izango da, eta Soinu Atadia eta Euskararen Erakundea elkarte autonomoek 2.585.573,07 eta 915.544,96 euro izango dituzte, hurrenez hurren. Aurrekontua aurrera atera zuten EAJ eta PSE-EE alderdiek osatutako gobernu-taldearen aldeko botoakaz; aitzitik, EH Bildu Leioak, Elkarrekin Leioa Podemosek eta PPk aurka bozkatu zuten.

Partidarik handienak Hirigintzan –kiroldegi berria, San Bartolomeko frontoia, bidegorrien sarea handitzea edo 6 eta 14 urte bitarteko gazteentzako ludoteka–, Kulturan, Kiroletan eta Gazterian –Leioako Kultur Liburutegia indartzeko eta udalerriko elkarteen aldeko apustu handiagoa egiteko– eta gizarte-ongizatean –leioaztarren oinarrizko beharrak betetzeko laguntzak indartzeko– banatuko dituzte.

Iban Rodriguez Etxebarria alkateak argitu gura izan du aurrekontuak negoziatzeko prozesuan gobernu-taldeak «adiskidetzeko eta negoziatzeko jarrerari eutsi ziola, nahiz eta botoen % 60 baino gehiago izan onartzeko».

EH Bildu Leioako Asier Izquierdo Aguilerak, berriz, udal-aurrekontuan «beste sentsibilitate batzuk sartu ez izana» deitoratu du, eta «2021ean onartutako eta bete gabeko emendakinei dagokienez lau urtetan aurrera egiteko gai ez izatea». Elkarrekin Leioa Podemosetik, berriz, «argi-itzalak» aipatu dituzte, eta aitortu dute konfiantza galdu dutela aurretik lortutako akordioak bete ez direlako. ◂

Artatza jauregiko ateak irekiko dituzte

Otsailean eta martxoan, Leioako eraikin enblematikoenetako bat hurbiletik ezagutzeko bisita antzeztuak egingo dituzte. Zapatuetan zabalduko dituzte jauregiko ateak, baina bertaratzeko lekua erreserbatu behar da Kultur Leioara deituta, 946 072 570. ARGAZKIA: LEIOAKO UDALA

Naizen elkartea

BEA SEVER Sexologoa

«Trans legea», galdutako aukera

Iragan abenduaren 22an, Espainiako Kongresuan «Trans legea» bezala ezaguna egin den araudia onartu zuten. Lege horren arabera, 14 urtetik gorako pertsona transexualek erregistroan izena eta sexuaren aipamena aldatu ahal izango dituzte bi urtez hormonazioa jasotzeko beharrik izan gabe eta nahasmendua dutela egiaztatzen duen mediku-txostenik gabe. Hori, duda barik, ospatzeko moduko aurrerapena da. Hala ere, 12 urtetik beherakoei eskubide hori ukatzen zaie, izena aldatzeko aukera baino ez baitzaie ematen. 12 eta 14 urte artekoen kasuan, erabakia dagokion epaileak hartu beharko du.

Galdu dugu, beraz, transexualitatea aniztasunaren adierazpen bat bezala onartzeko aukera, gizakiei datxekion intersexualitatearen beste erakusgarri bat bezala ontzat hartzeko abagunea, eta ez erabakitzen edo aukeratzen den zerbait bezala eta, ondorioz, gutxieneko adina behar duena. Pertsona transexualak jaiotzatik dira direnak eta, beste guztiek bezala, haurtzaroa dute. Bakoitzaren biografiaren baldintza ezberdinen arabera, lehenago ala beranduago nor diren identifikatu, onartu eta adierazi ahal izango dute eta, testuinguruaren arabera, lehenago ala beranduago entzun eta artatu ahal izango ditugu. Baina behin hori gertatuta, onartezina da 12 urte bete arte itxaron behar izatea beste haur guztiek dituzten eskubideak izateko.

Erregistroaren menpeko dokumentuetan sexuaren aipamena aldatzeko ezintasunak ez du lortuko haur horiek direnak izateari uztea, baina eguneroko bizitza zailagoa egingo die. Eta nahiko zaila izaten zaie askotan. Giza izate sexualaren ezezagutzak bizitzak oztopatzen jarraitzen du. ◂

Erandio Merkatu Zaharra irekita

Altzagak kultur gune berria estreinatu du tokiko eskaintza areagotzeko

Erandioko erabilera anitzeko kultur gune berria martxan dago daborduko. Hainbat atzerapen izan ostean, Altzagako Merkatu Zaharrak ateak ireki ditu auzoko kutur premiak asebetetzeko helburuagaz, bai eta erabilera anitzeko gune bat eskaintzeko erandioztarrei ere, bereziki gazteei, kontzertuak, tailerrak, antzerkiak eta entsegu-gelak eskura izan ditzaten.

Zentzu horretan, Merkatu Zaharrak erabileraren araberako bi gune nagusi ditu: alde batetik, 650 pertsona zutik eta 280 eserita edukiera duen antzezleku bat, non eserlekuak agertokiaren azpian batu daitezkeen, eta, bestetik, bigarren solairuan, antzinako merkatuan harategiak zeuden lekuan, taldeentzako bi entsegu-gela eta erabilera anitzeko gela bat ere gaitu dituzte. Gelok 23 eta 15 metro koadrokoak dira, eta erabilera anitzeko salak 73 metro karratu ditu. Horrez gain, goiko solairuan antzezlekura begira dagoen palko bat ere jarri dute. ◂

«Erandioztarrok beti gogoratuko dugu eraikin hau nolakoa eta zertarako zen; orain, denon gozamenerako leku modernoa da»
AITZIBER OLIBAN
ERANDIOKO ALKATEA

Erandio Kukularrako geltokia

Kukularrako autobus-geralekua berrezartzea eskatu dute

Urtarrilaren 1ean, Bizkaibusek A2322 lineari dagokion Altzaga Ikastolako geralekua kendu zuen, Kukularra auzo erandioztarrean. Horren eraginez, bertako bizilagunak «inkomunikatuta» geratu direla adierazi dute, hurbilen dagoen geralekua urrunegi dagoelako, «beraz, mugikortasun-arazoak edo nagusiak diren bizilagunei eragingo die».

Hori leheneratzeko eta geralekua berreskuratzeko sinadurak biltzeko kanpaina abiatu dute change.org atariaren bitartez. Daborduko, behar dituzten 500 sinaduretatik 300 baino gehiago batu dituzte. ◂

2.000 sinadura baino gehiago.

Tartanga Berdea plataformak Altzagako hirigintza-proiektua geldiarazteko eta berdegunearen etorkizunari buruz herri-galdeketa egiteko 2.009 sinadura aurkeztu zituen aurreko urtarrilaren 14an. Herri-ekimena Erandioko Udaleko osoko bilkuran bozkatu beharko dute orain.

bai euskarari
irati
MODA GAZTEA ETA ARROPAK
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
Torrene, 2 48991 – ALGORTA

GetxoGaso

Urteko 365 egunetan gaude zabalik
·Garbiketa gunea
·Denda eta okindegia
·GnG tailerra
·Solaguren Jatetxea
944 301 500
Getxo eta Berango artean
GetxoGason Euskararekin bat!

Berango Munarrikolandako bunkerrak garbituta

Eskolako ikasle eta gurasoak mendian auzolanean

Eguraldia lagun izan ez zuten arren, Berango-Merana eskolako hainbat ikaslek eta gurasok urtarrilaren 15erako jarritako hitzorduari jarraituta, Munarrikolandako bunkerrak eta inguruak garbitu eta hainbat haritz landatu zituzten. Azaldu dutenez, azpiegituraren barrualdea eta eskailerak atondu zituzten, 10 zaku zabor batuta. Ondoren, Sopela, Urduliz eta Berango udalerrien arteko mugan, Euskal Herriko mapa irudikatu eta zazpi haritz landatu zituzten horren inguruan, euskal probintziako bana. Azkenik, euriari eta hotzari aurre egiteko hamaiketako «arina» jan, indarrak batu eta etxerako buelta egin zuten ekintzaileek, «eguneko intentzioak burututa». Hona hemen irudi batzuk. ◂

Sopela Ingurumena

Sopelako Eraztun Berdearen mapa aurkeztu dute

Udalerriak ondare naturalari, kulturalari eta historikoari balioa eta babesa emango dion egitasmoko mapa aurkeztu dute. Egitasmoaren logotiko berria ere ari dira bilatzen.

Sopelako Eraztun Berdearen egitasmoak aurrerapauso garrantzitsua eman zuen urtarrilaren 14an, berau osatzen duten interesguneen mapa aurkeztu baitzuten. Horretan, udalerriko hainbat eremu zehaztu dituzte, hala nola biodibertsitatearentzako interesgarriak diren hegaztientzako guneak, basoak eta errekak; Sopelak duen ondare arkeologiko nabarmena, besteak beste, Sahierriko eta Munarrikolandako dolmenak edo historiaurreko induskatak; udalerriko hainbat errota eta kostaldeko eremu bereziak.

Aurkezpenean azpimarratu zutenez, Eraztun Berdearen eremuak babes eraginkorreko kalifikazioa izango du, eta horrela jasoko du Udalak daborduko lantzen ari den Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorrean (HAPO). Bertan, egitasmoaren helburuak lehenetsiko dituztela agindu dute, hirigintza-garapenaren gainetik.

HAINBATEN ELKARLANA. Egitasmoa Kiribile elkarteak sustatutako harreman- eta topaketa-prozesutik jaio da, 2022ko maiatzaren 13an gorpuztu zen herritarren Akordio Estrategikoari esker. Bertan, egitasmoaren oinarriak, printzipioak, lan-eredua eta helburuak jaso zituzten, eta, ordutik, Sopelako hainbat eragile instituzional, politiko eta sozial elkarlanean aritu dira aurkeztu zuten mapari forma emateko.

Sopelako frontoian egin zuten aurkezpenean Kiribile elkartekoek nabarmendu zutenez, «akordio horren bidez, eragile instituzional, politiko eta sozial guztiek Sopelako Eraztun Berdea zehaztea eta gauzatzea ekarriko duten akordioak eraikitzeko prozesu bat garatzeko borondatea agertu zen, jarrera positibo eta kolaboratibo batetik».

Era berean, Josu Landaluze Sopelako alkateak zera adierazi zuen: «Perimetro natural babestu eta maitatu batez hornitzeko tresna bat lortu nahi da, eta zalantza barik, sopeloztarrei eta bisitatzen gaituztenei ingurune bizi bat eskainiko die, pultsu naturalarekin eta biodibertsitatetik datozen erakargarri ugarirekin».

Behin mapa zehaztuta, «berau eraikitzeko erronka hasten da», aurreratu zuten Eraztun Berdearen Kontseiluko kideek. Horretarako proiektuan inplikatuta dauden pertsona guztien arteko akordio lortzea beharrezkoa dela azpimarratu zuten, «baita eraztun berdean sartutako lursailen jabeen artean ere, izan ere, lursail horiek funtsezkoak dira haien garapenerako eta Kontseiluak horiekin akordioak lortzea espero du». ◂



Eraztun Berdearen mapa eta aurkezpenean parte hartu zuten kideak. SOPELAKO UDALA

Lehiaketa

Maparen aurkezpenagaz batera, Eraztun Berdearen irudia diseinatzeko lehiaketa ere deitu zuten, irudi korporatiboa, logotipoa, koloreak eta tipografia diseinatzeko, hain zuzen. Irabazleak 500 euroko saria jasoko du, eta lehiaketaren oinarriak Sopelako Udalaren webgunean kontsultatu ahal izango dira.

Plentzia Auzoekin bat ekimena

Plentziako auzoak hobetzeko 54 jarduketa egingo dituzte

Plentziarren proposamenak batzeko Auzoekin bat egitasmoa 54 jarduketetan gauzatuko da. Horretarako, Udalak 200.000 euroko aurrekontua dauka.

Auzoak hobetzeko helburuagaz, Udalak Auzoekin bat egitasmoa abiatu zuen 2022ko ekainean. «Egitasmo horren helburua zen hiribilduko auzoetako errealitatea bertatik bertara ezagutzea, bizilagunen iradokizun eta ekarpenen bidez hobekuntza-jarduerak detektatzea eta orain arteko udal-kudeaketaren berri ematea», azaldu du Elixabete Uribarri alkateak.

Ildo horretan, aurrez aurreko zazpi saio egin dituzte, eta etxe guztietara bidali dituzte galdetegiak. Horren emaitza izan da jaso dituzten 379 proposamenak, eta horiek baloratu eta aztertu ondoren, 54 jarduketa zehaztu dituzte. Horiek gauzatzeko, Udalak 200.000 euroko aurrekontua bideratu du Inbertsio Plan Berezitik, eta, daborduko, jarduketa batzuk abian dira, hala nola Eliz plazaren ondoko bidean hormigoi inprimatuaren ordez galtzada-harriak jartzeko eta Charterreko biribilgunea egokitzeko lanak.

Daborduko Udalak abiatu ditu aurkeztu dituen jardueretako batzuk. PLENTZIAKO UDALA

379
proposamen jaso ditu Udalak Auzoekin bat entzunaldi aktiboetan eta postontzietako egindako kanpainari esker.

Egitasmorako, Udalak alde zaharra, Isuskitza, Txipio-Gatxamiñe, portuaren ingurua, Saratxaga eta Gandiako biztanleen iritziak batu ditu. Kasu gehienetan, prozesu horretatik eratorritako 54 jarduketen ardatz nagusiak gai hauen ingurukoak izango dira: hiri-altzariak mantentzea eta konpontzea, garbitasunari dagozkionak, trafikoari lotutako egokitzapenak eta aisialdiagaz lotutako jarduerak. ◂

Plentzia Danontzat gaztetxearen hustea

Kartelak jartzeagatik 4.500 euroko isuna jarri diete gaztetxeko sei kideri

Aurreko urrian, Plentzia-Gorlizko Danontzat gaztetxea hustu eta gero, gazteek hori salatzeko hainbat kartel jarri zituzten Plentziako kaleetan, eta, horretan ari zirela, Udaltzaingoak sei kide identifikatu zituen. Horri lotuta, egunotan heldu zaizkie bakoitzak 750 euroko isuna jaso duenaren jakinarazpenak.

Gaztetxeko kideek neurria salatu dute adieraziz «gaztetxearen aurkako erasoa» dela». Halaber, gaineratu dute, Udaltzaingoak identifikatu arren, gobernu-taldea izan dela salaketa tramitatzea erabaki duena, eta, horretarako, 2009an onartutako bizikidetza bermatzeko ordenantza aplikatu dietela, «Mozal Legea baino are neurriz kanpoagoko zigorrak ezartzen dituena». Deitoratu dute betidanik egon direla kartelak baimenik gabeko tokietan, baina ordenantza hori aplikatzen duten lehen aldia dela. «EAJren estrategia bat da eragile sozialen aurka joateko eta kalea mutu mantentzeko», deitoratu dute. ◂

> Urrian, agenteek bost gazte identifikatu zituzten eta desobedientzia larria egotzi; halere, oraindino ez dakite horri lotutako salaketak jasoko dituzten ala ez.

Ohitura zaharrak

ARITZA BERGARA Idazlea

Natibitatea, urte amaiera... ala neguko solstizioa?

Neguko jaiak pasa dira, ezta? Inoiz galdetu diozu zeure buruari zer da konkretuki data hauetan ospatzen duguna? Urte amaiera erantzungo du baten batek. Beste batzuentzat Gabonak, Natibitatea, kristautasunari lotutako sinesmenak... Baina kontutan izan horiek guztiak gizakiok sortutako erreferentziak dira. Eta hori baino lehen... zeintzuk ziren erreferenteak?

Mendeetan zehar, jendeak ingurura begiratzen zuen denbora markatzeko. Ilargiaren zikloak eta lurra eta eguzkiaren arteko posizioek naturan eragiten dituzten aldaketa ziklikoak jarraituz lortzen zituzten haien erreferentziak. Mugarri ezberdinak bazeuden, haien artean denbora markatzeko eguzkia nabaritzen zen, argia ematen duelako, bizitzari bidea eginez.

Eguzkia erreferentziatzat hartuta, lurraren ardatza makurtuta dagoenez, urteko momentu ezberdinak sortzen ditu, urtaroak, hain zuzen ere. Inklinazioa dela eta, jasotzen ditugun argi orduen kopurua aldatzen doa. Aldaketa honen momentu kritikoak eguzkia urrunagoa edo hurbilagoa dagoenean dira, hots, neguko solstizioa, urteko egunik motzena eta gaurik luzeena, eta udako solstizioa, urteko egunik luzeena.

Eta horiek dira hain zuzen ere gaur egun ospatzen duguna: solstizioak.

Solstizio hitza latinetik datorkigu *solstitium*. Eguzkia geldirik dagoela adierazten du, handik aurrera ziklo berria hasiko du eta.

Sinesmen, errito eta ohitura batzuk milaka urte dituzte, eta urte gutxira arte bizirik iraun dute, landatarren inguruan batez ere. Batzuk mantendu dira, hirietan indarra berreskuratu dituztenak ere badira, baina beste asko eta asko betirako desagertzen ari dira. ◂

Lemoiz Krisi ekonomikoari aurre egiteko neurriak

Udalak tasak eta zergak izoztuko ditu bigarren urtez

Udal-zergen izozte hau hainbat hobariren eskutik etorriko da, hala nola ibilgailu elektrikoei Trakzio Mekanikoaren gaineko Zergan % 70ekoa, familia ugariei OHZn % 50ekoa eta eguzki-plaken instalazioei edo oztopo arkitektonikoak ezabatzen dituzten obrei EIOZn % 90ekoa.

Egoera ekonomikoaz eta 2023an inflazio handia mantenduko dela adierazten duten aurreikuspenez jabetuta, Lemoizko Udalak 2023ko ekitaldirako udal-tasa eta zerga guztien zenbatekoari eustea erabaki du. Iñaki Alonso alkateak adierazi du «erabaki bidezkoena eta arduratsuena» hartu dela, herritarrei Udalak ere jasaten dituen kostuen igoerak ez helaraztea saihestuz, eta zerbitzu publikoen mantentzea eta kalitatea arriskuan jarri gabe. Alonsok azpimarratu du Udalak ahalegin bikoitza egiten duela, gehiago biltzeari uko egiten diolako, eta, aldi berean, herritar batzuen karga fiskala arintzen lagunduko duten zenbait hobari sartzen direlako. «Erabaki hau lemoiztarrak babesteko legegintzaldi osoan zehar hartu ditugun gizarte-neurriekin bat dator», nabarmendu du alkateak.

Erabaki honen ondorioz, Lemoizko Udalak ez ditu eguneratuko zerga-indizeak, hala nola Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ), Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ), Ibilgailuen gaineko Zerga eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) eta Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga. Zaborra, estolderia edo zerbitzuak emateagatik tasak ere izoztu egingo ditu Udalak, prezio publikoak bezala. Era berean, izozte hori hainbat hobariren eskutik etorriko da. ◂

Uribe Kosta Ekogune

Ikastaroetarako izen-ematea, zabalik

Uribe Kostako Mankomunitateko Iraunkortasun Sailak 2023ko lehen lauhileko Ekoguneko ikastaroen zerrenda aurkezteagaz batera, horietan izena emateko epea ere zabaldu du. Prozesua online egin beharko da eta hilaren 25era arte egongo da zabalik; ondoren, urtarrilaren 30ean argitaratuko dituzte tailerrotan onartutakoen zerrenda. Guztira, Mankomunitateak 19 ikastaro eskainiko ditu kide diren udalerrietan erroldatuta dauden ume eta gazteentzako. Elikadura jasangarriagaz eta osasuntsuagaz eta kontsumo arduratsuagaz lotuta egongo diren ikastaroak otsailetik maiatzera bitartean egingo dituzte Sopelako Urgitxieta plazako Mankomunitateak dituen bulegoetan.

Horietan parte hartzeko gutxieneko adina zortzi urtekoa izango da, baina tailer bakoitzak bere adin-tarte zehatza izango duela zehaztu dute. ◂

Uribe Kosta Eusko Jaurlaritzaren plana

Zentral eolikoak eraiki gura dituzte Gorlizen eta Lemoizen

Energia berriztagarrien lurralde plan sektorialaren (LPS) proposamenaren arabera, zentral eolikoak eraikiko lituzkete gurean, Urizarmendin eta Ermuan.

Energia berriztagarrien lurralde plan sektoriala (LPS) onartu gura du uda honetarako Eusko Jaurlaritzak. Proposatutako txostenaren aurrerapenaren arabera, EAEko hainbat eremutan ezarriko lituzkete zentral eolikoak, mendiguneetan zein kostaldean, tartean, Gorlizen eta Lemoizen. Planak oraindino hainbat mugarri ditu aurretik, eta proposatutakoak hainbat aldaketa eta zuzenketa izan ditzake onartu baino lehen. Hala ere, momentuz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak online duen dokumentuan dozenaka eremu proposatzen ditu zentral eolikoak egiteko, besteak beste, Urizarmendin eta Ermua mendian.

Plan horren bitartez, Eusko Jaurlaritzaren helburua da gaur egungo potentzia eolikoa bost biderrez biderkatzea 2030erako. Hala, urte horretarako, asmoa da energiaren kontsumoaren % 21 iturri berriztagarrietatik lortzea; eta % 40 izatea iturri horretatik 2050erako.



Gorliz eta Lemoiz arteko mendietan eraiki gura dituzte zentralak.

Zentralak hurrengo mendietan eraikitzea aurreikusi du planak: Urizarmendi, Leorrari, Ermua mendia, Etzandarri eta Lularri.

LPSak bi motatako guneak bereizi ditu bere proposamenean: lehen eta bigarren mailakoak. Aurrenekoak urtean 3.350 orduz funtzionatzeko aukera izango luketen lekuak dira; bigarrenak, berriz, urtean 2.650 orduz lan egingo luketenak. Gurean, bigarren talde horretan kokatuko lirateke proposatutako guneak. ◂

Barrika Birziklatzeko kanpaina

Barrika Batu kontzientziazio kanpaina amaitutzat eman dute

Barrika Batu proiektua 2022ko irailean hasi zen, eta Udalak amaitutzat eman du lau hilabetez birziklatze edukiontzien erabilera zuzenari buruz dibulgazio- eta kontzientziazio-kanpaina. Tantak elkartearen laguntzagaz, ingurumena zaintzeko birziklatzearen beharraz ohartarazteko hainbat jarduera egin dituzte.

Barrikako Udalak birziklapenaren aldeko apustua 2021ean hasi zuen, edukiontzi marroia ezarriz, hondakin organikoak, hala nola fruta, barazkiak eta janari-hondarrak, batzeko. Udal-iturriek azpimarratu dutenez, edukiontzi horrek aukera ematen du etxeko hondakinen birziklapena sustatzeko eta udalerria leku iraunkorragoa bihurtzeko. Aldi berean, herritar kontzientziatuen aldeko apustua eginez, errefusaren edukiontzietan sarraila elektronikoa ezarri zen. Errefusaren edukiontzia, edukiontzi organikoa bezala, Barrikako etxebizitza bakoitzari banatutako txartel elektroniko bategaz irekitzen da. ◂

Burutu dituzten jardueren artean, hondartza garbitzeko jardunaldia egin zuten Muriolan.

Maite Elejalde Guerra Berango-Merana eskolako irakasle eta eTwinning proiektuko irabazlea

«Garrantzitsuena da ikasleen arteko lankidetza»

***Around the world with friends* izeneko proiektuagaz irabazi ditu Maite Elejalde Berango-Merana eskolako irakasleak 2022ko eTwinning proiektuko Espainiako eta Europako sariak. Bere eta Poloniako beste irakasle baten gidaritzapean, 80 ikasletik gorak parte hartu du egitasmoan.**

Julio Verne idazle ospetsuaren *Munduari bira 80 egunetan* eleberri ospetsuan oinarrituta, Berango-Merana ikastetxeko LH 3. eta 4. mailako 65 ikaslek parte hartu zuten joan den ikasturtean Maite Elejalde Guerra ingeles-irakasleak gidatutako *Around the world with friends* izeneko proiektuan. Horiei batu zitzaizkien Poloniako ikastetxe bateko beste 20 ikasle, Erasmus+ programako eTwinning egitasmoaren bitartez, eta, egindako lan onari esker, Espainiako Estatuko eta Europa mailako sari bana irabazi ditu taldeak. «Bi herrialderen arteko taldea izanik, garrantzitsua izan da IKT erremintak erabiltzea, eta, gainera, horixe da programa honek bultzatzen eta sustatzen duena: elkarlana», azaldu du ingeles-irakasleak.

Hala, Berangoko eta Poloniako eskoletako ikasleek Julio Verneren istorioan murgildu eta aztertu zuten, Phileas Fogg protagonistagaz batera «euren bidaia» egin eta Britainia Handia, Egipto, India, Txina, Japonia eta Estatu Batuetako errealitateak ezagutzeko, besteak beste. Horretarako, ikasleek askotariko materialak prestatu zituzten, eta ondoren audio-liburu bat osatu zuten. «Ikasle bakoitzak liburuaren biñeta bana osatu zuen, elkarrizketak osatu zituzten eta audioa grabatu genuen». Bidean, baina, askotariko beste hainbat jarduera egin zituzten, hala nola jolasak ikusitakoaz hausnartu eta gauza berriak ikasteko. Horretarako, hamar talde osatu zituzten, bi eskoletako neska-mutilak nahastuta. «Horri esker, euren artean hitz egin eta elkar ezagutzeko aukera izan zuten, bideo-deien bitartez», dio Elejaldek.

> Helburua da kontaktua, ideien trukea eta eTwinning-en parte hartzen duten herrialdeetako irakasleen eta ikasleen arteko lankidetza sustatzea, IKTen bidez.

PANDEMIAK BALDINTZATUTA. Emaitza horri esker, taldeak sari bi irabazi zituen iaz, 2022an, bata Espainiako Estatu mailakoa, eta bestea Europa mailakoa. Lehenengoa Madrilen banatu zuten azaroan, eta saria jasotzera joateko aukera izan zuen Elejaldek. Bigarrena, baina, ezinezkoa izan zen nazioarteko kideakaz batzea, konferentzia online egin behar izan zutelako. «Pena bat izan zen, halako proiektu bat egin ondoren sari politena delako beste herrialde batera joan ahal izatea eta atzerritik zure kide izandako horiek aurrez aurre ezagutu ahal izatea. Bideo-deien bitartez ezagutzen gara, baina ez da berdina...». Zalantzarik gabe, eTwinning proiektu guztien jarduera nagusia

eta arrakastatsuena ikasleen artean bideokonferentzia izan da: «Neska-mutilak txundituta gelditzen dira atzerriko euren kideekin denbora errealean ikusteko eta hitz egiteko aukera dutenean. Bideokonferentzia hauetan, hobeto elkar ezagutu, herrialdeei buruz ikasi eta, batez ere, jolasten dugu, ikasitakoari buruz hausnartuz eta gauza berriak ikasiz».

ZAZPIGARREN SARIA. Maite Elejalde ez da berria mota honetako proiektuetan. Izan ere, azaldu duenez, 13 urte daramatza halako egitasmoak garatzen eta, egindako lanaren ondorioz, daborduko Espainiako bost sari eta Europako beste bi jaso ditu. Atzerriko lankideei dagokienez, azaldu du duela bost urtera arte Poloniako beste irakasle bategaz egiten zuela lan, baina orain bost urte inguru hura jubilatu zenez, «kasualitatez» egin zuen topo oraingo irakasleagaz, Anna izenekoa, eta ordutik beragaz egin du aurrera: «Oso ondo moldatzen gara lan hauetan, eta gustura egiten ditugu proiektuak». Aurten, baina, beste irakasle bat batu zaie egitasmora, Txekiar Errepublikakoa. Oraingoan, espazioa landuko dute, eta, horretarako, Koperniko izango dute protagonista.

> Pandemiaren eraginez, Europako sariketa online egin behar izan zuten, eta ezinezkoa izan zuten Berangoko eta Poloniako ikasleek aurrez aurre ezagutu.

ANDER DEUNA IKASTOLA

Gatzarriñe kalea, 47. 48600 SOPELA • 946 760 266 • info@anderdeuna.eus • www.anderdeunaikastola.eus

Handitzen handitzen... Ikastolan!

Uribe Kostako komunitate euskaltzalea da Ander Deuna, inguru natural paregabean eta ikastolen hezkuntza euskaldun eta eraldatzailea ardatz duena.

Ander Deunan, ikaslea ulertzeko moduan oinarritutako eredu pedagogikoa ezartzen dute.

Bertako lantalde gaitu, trinko eta profesionala da Ander Deuna Ikastolaren ardatza. Gainera, Euskal Herriko Ikastola Elkarteak duen hezkuntza-ereduari esker, beste hainbat zentrogaz ari da etengabeko harremanean elkarrengandik ikasiz, bertan ikasten duten umeak etorkizunean euskaldun konprometituak eta eleaniztunak, kritikoak, erabaki hartzaileak, ekintzaileak... izan daitezen.

Azpimarratzekoa da bere kokagune apartari esker, Haur Hezkuntzatik batxilerreraino doazen ikasleak naturaz inguratuta hazi eta hezteko aukera dutela. Halaber, hezkuntza-eskaintzari eransten zaizkio dituzten kalitatezko zerbitzuak, hala nola bertan eta bertako produktuakaz prestatutako jatekoa, garraio propioa, eskolaz kanpoko aktibitateen eskaintza zabala edo familien beharren araberako zaintza zerbitzua.

110 ikastolakaz batera ari dira elkarlanean.

SAN NIKOLAS IKASTOLA

Areneazpi, 15 48991 GETXO • 944 30 54 78 • ikastola@sanikolas.eus • www.sanikolas.eus

San Nikolas Ikastola, erdigunean zu

Berritzailea, gertukoa, inklusiboa, euskalduna eta kooperatiboa da San Nikolas Ikastola. Beste kulturekiko zabaltasunaz euskal kultura sustatzen du.

San Nikolas Ikastola Algorta auzoan dago kokatuta, Getxoko bihotzean.

Urte batetik hasita eta 16 urtera arte hizkuntza murgiltze ereduan kalitatezko hezkuntza eskaintzen du San Nikolas Ikastolak. Etengabe eguneratutako hezkuntza-sistema pedagogikoaz gain, San Nikolas Ikastolak eskolaz kanpoko hainbat zerbitzu eskaintzen ditu; haurtzaindegia, jantokia edota Uribe Kosta osora heltzen den garraio-azpiegitura, besteak beste.

Guraso-talde baten ekimenez sortutako hezkuntza proiektu honetan, langileak, gurasoak zein ikasleak eguneroko kudeaketan ezinbestekoak dira. Beti ere, euskararekiko konpromiso irmoagaz, hizkuntzaren egonkortasuna eta presentzia indartzea baita San Nikolas Ikastolaren helburuetako bat. Bestalde, irakasleen etengabeko formakuntzak San Nikolas Ikastolak hezkuntzaren kalitatearekiko eta garapenarekiko duen konpromisoa islatzen du.

Gertutasunak bereizten du San Nikolas Ikastola.

ARTAZA-ROMO BHI

Amaia Etorbidea, 28. 48940 LEIOA · 944 287 852 / 944 287 854 · 015111aa@hezkuntza.net

Kalitatezko Hezkuntzaren berme

Hezkuntza euskaldun, eleanitz, inklusibo, hurbil eta berritzailea ardatz duen Institutua da Artaza-Romo, Pineta eta Romo auzoetatik gertu dagoena.



Eskaintza askotarikoa da bertan, eta, besteak beste, Batxilergo Artistikoa dute.

Euskara du erdigunean; izan ere, D eredua da nagusi. Normalizazio talde sendoa dago, eta, gainera, hizkuntza errefortzurako aukera du.

Hala ere, eredu eleanitza dago bertan. *English Language Assistant* figura du zentroak eta, horri esker, laugarren hizkuntza ere aukera daiteke. Inklusiboa da, aniztasunaren trataera zutabe baitu: dibertsifikazioa, gela egonkorra eta Bidelagun Programa dira bertan. Halaber, bi orientatzaile ditu, baita psikologoa ere. Hurbila da. Komunitateari garrantzia ematen dio, eta, gainera, Gobelako metro-geltokitik hur dago. Era berean, askotariko azpiegitura ditu, hala nola musika gela, liburutegia, ortuak... Berrikuntza pedagogikoa du giltzarri: konpetentzietan hezten dituzte ikasleak, eta arlokako metodologiarantz doaz, curriculum berria inplementatuz. Batxilergo Artistikoa ere eskaintzen dute bertan, eta eskolaz kanpoko eskaintza ugaria dute.

Erdigunean euskara izanda, D eredua du nagusi.

ARTATZA-PINUETA IKASTETXE PUBLIKOA

Artatza, 81. 48940 LEIOA · 944 638 429 · artatzapinueta@gmail.com

Eskola hurbila eta integratzailea

Leioako Artatza auzoan dagoen D ereduko ikastetxe publiko txikia da hau. Ikasleen, irakasleen, langileen eta gurasoen arteko harremanak oso hurbilak dira bertan.

Ikastetxea kutsadura akustikorik gabeko gune natural batean txertatuta dago.

Euskaragaz eta euskal kulturagaz konprometitutako lerro bakarreko ikastetxe familiarra da hau. Leioan dagoen D ereduko eskola publikoa da eta, bere kokapenagatik, udalerriko ikasleek autobus-zerbitzua dohainik izateko aukera dute.

Eskola txikia izan arren, dituen guneek handi egiten dute; eremu naturalez inguratuta, hamaika aukera ditu eskolak bertan dauden ikasleek horietaz goza dezaten.

Ikastetxearen helburua da ikasleek gaitasun eta trebetasun emozionalak eta kognitiboak garatzen laguntzen dien prestakuntza eskaintzea. Horretarako, bere Hezkuntza Proiektua baloreetan eta eskola inklusiboaren printzipioan oinarritzen da. Eskola txikia izanda lantaldearen harremana hurbila eta eraginkorra da, inplikazio maila adierazgarria eta ikasleen beharrei egokitutako atentzioa eskaintzen duena aniztasunari erantzun egokia emanez.

Baloreetan eta elkarrizketan oinarritzen dira.

BETIKO IKASTOLA
Artatza auzoa, 84. 48940 LEIOA • 944 642 364 • info@betikoikastola.eus • www.betikoikastola.eus

Leioako ikastola herritarra

Leioako Betiko Ikastola guraso kooperatiba eta Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko kidea da. Euskarazko hezkuntzan aitzindariak izanik, ikasmaterial propioa dute.

Gune euskaldun, zabal, seguru eta aberats baten alde egiten du Betiko Ikastolak.

Betikoren eredu inklusiboak euskara eta euskal kultura ditu ardatz. Euskal Curriculumean oinarrituz, konpetentziak eta baloreak garatzeko ikasmaterial eta metodologi propioa dauzka, ebaluazio-sistema hezitzailea izanik. Adinari egokitutako bi metodologia lantzen dituzte: HH eta LH 1-2-3ko ikasleakaz konfiantzaren pedagogia eta LH 4-5-6 eta DBHko ikasleakaz EKI proiektua. Familiakaz elkarlanean, naturan murgildutako eremu euskaldun seguru baten alde egiten du.

Guztion arteko konfiantza eta errespetua ezinbestekoak dira ikasleen garapenerako, beraz, emozioak eta ongizatea asko zaintzen dituzte; horretarako, KIVA, hezkidetza eta elkarbizitza proiektuak dituzte. Jantokia ere garrantzitsua da hezkuntza-prozesuan eta, horregatik, bertan maitasunez prestatutako eta bertoko eta sasoiko produktuakaz egindako menuak eskaintzen dituzte.

Euskaraz sentitu, pentsatu eta ekin Betiko Ikastolan.

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA
EUSKALTEGI MUNICIPAL DE GETXO

5 ORDUKO IKASTARO TRINKOAK
CURSOS INTENSIVOS DE 5 HORAS

Maila guztiak / Todos los niveles: A1-A2-B1-B2-C1

Ikastaroa: otsailaren 20tik ekainaren 30era arte (415 ordu)
Curso: del 20 de febrero al 30 de junio (415 horas)

Matrikula zabalik: urtarrilaren 9tik otsailaren 15era arte.
Matrícula abierta: del 9 de enero hasta el 15 de febrero.

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA (RKE eraikina)
Santa Eugenia plaza, 1 (Romo) Getxo
944 646 299 – euskaltegi@getxo.eus

www.getxo.eus/eu/euskaltegi
www.udaleuskaltegiak.eus/eu

Getxo KULTUR ETXEA EUSKALTEGIA
Getxo bizi ezazu

Matrikulazio-prozesua

Matrikulazioa baliatuko dute segregazioari aurre egiteko

Hurrengo ikasturteko matrikulazio-prozesuari begira, eskoletako segregazioa eragozteko neurri zuzentzaileak abiarazi ko dituela iragarri du Hezkuntza Sailak. Egitasmo horren helburua da ikasle zaurgarrienak modu orekatuago baten banatzea diru publikoz sostengatzen diren ikastetxeen artean.

Prozesua progresiboa izango dela iragarri zuen Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburuordeak, eta umeak Haur Hezkuntzan sartzen diren unetik hasiko da aplikatzen. Pedrosak gaineratu zuen neurri orekatzaileak «oso garrantzitsuak» direla, baina segregazioari aurre egiteko neurri zuzentzaileak ere beharrezkoak direla, eta ikasle zaurgarrienak modu orekatuan banatu behar direla ikastetxeen artean.

Neurri zuzentzaileak bi araudi berrigaz aplikatuko dira: bat, matrikulazio-prozesuari eragingo diona, eta, bestea, matrikulazio biziaren prozedurari dagokiona. Lehena 2023-2024 ikasturteko onarpen- edo matrikulazio-prozesuan abiatuko dute, zehazki, hurrengo otsailetik aurrera. Horretan, eskaintzaren plangintzak eta onarpena arautzen duten mekanismoak baliatuko dituzte.

Zentzu horretan, onarpen-prozesuan egongo diren aldaketa nabarmenenak hauek izango dira: plaza-kopuruaren araberako plangintza, diru publikoagaz sostengatzen diren zentro guztiek gorde beharko dituzte Hezkuntza Sailak ezarritako plaza-kopurua, familiek eskaera egitean emandako datuakaz osatutako Zaurgarritasun Indizea, neurriaren zonifikazioa, hurbiltasuneko eskolatzea eta familiek ez dute ikastetxeak hautatzeko mugarik izango.

Arestian aipatutako irizpide guztiak matrikula bizira ere hedatuko dituzte, hau da, behin ikasturtea hasita, ohiko matrikulazio ofizialetik kanpo geratzen diren prozesuetarako.

Mondragon Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

«Mondragon Unibertsitatean jasotzen dugun ikaste metodoa praktikoagoa da beste unibertsitate batzuk eskaintzen dutenarekin alderatuz»

Ainhoa Maurolagoitia Isasi Industria Diseinu eta Produktu Garapenaren Ingeniaritza graduaren 3. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik? Larramendi Ikastolan (Mungian) burutu ditut nire ikasketak unibertsitatera sartu arte. Orain Industria Diseinu eta Produktu Garapenaren Ingeniaritzako hirugarren maila egiten nabil Mondragon Unibertsitatean, eta Arrasaten bizi naiz astean zehar.

Zergatik aukeratu zenuen Industria Diseinu eta Produktu Garapenaren Ingeniaritza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea? Gradua aukeratzeko momentuan zalantzak izan nituen, gehienbat non ikasteagatik. Banekien ingeniaritza arloko graduren bat egin nahi nuela, baina ez negoen seguru zein aukeratu. Ate irekietara etortzea erabaki nuen zalantzak argitzeko eta ikusi nuena gustatu zitzaidan. Mondragon Unibertsitatean erabiltzen den metodologiak interesa piztu zidan eta azkenean hau aukeratu nuen.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia? Esperientzia on bezala kalifikatuko nukeen bizitako guztia hiru urte hauetan. Alde batetik, lagundu egin didalako esperientzia honek independenteago izaten. Eta beste alde batetik, ikasketa mailan ere sendotzen lagundu didalako.

Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Politeknikoa jasotzen duzun ikasteko metodologia? Mondragon Unibertsitatean jasotzen dugun ikaste metodoa praktikoagoa da beste unibertsitate batzuk eskaintzen dutenarekin alderatuz. Alde batetik, tailerren praktikak egiterakoan, posible duzu ikasitakoa praktikan jartzeko eta errazago gogoratzeko. Beste alde batetik, talde lanak garrantzitsuak dira Unibertsitate honetan erabiltzen de metodologiarentzako. Maila guztietan, hiruhileko bakoitzean ikasitakoa biltzen duen talde lan bat egiten da, PBL (Project Based Learning) izenekoa, nota finalean eragin handia duena.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko? Alde batetik, asko gustatzen zait praktikan jartzea ikasitakoa, adibidez PBL proiektuarekin beharrezkoa ikusten dut kurtsoak aurrera joan ahala apurka esperientzia gehiago hartzen joatea. Baita, Unibertsitatean askatasun gehiago duzu zure burua antolatzeko baina Mondragon Unibertsitatearen kasuan, egia da, jarraipen akademiko bat duzula irakasleengandik eta horrek lagundu egiten du ikasgaiak egunerokotasunarekin eramaten. Beste alde batetik, bai uste dut gradura sartzerakoan oso orokorrak direla lehenengo mailan ematen diren ikasgaiak eta nik uste dut diseinu arloko ikasgai gehiago faltan botatzen direla.

Zure kasuan ez zaude lanean, baina zure ustez, zer nolako ekarpena egiten du eredu dualak? Nire iritziz, dual ereduak ezagutza asko eskaintzen dizu pertsona moduan. Aukera bikaina da ikasitakoa praktikan jartzeko. Gainera esperientzia asko irabazten duzu bigarren mailatik lanean hasita, gero praktikak egiterakoan esperientzia hori nabaritu egiten da.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak? Oraindik urte bat falta zait gradua bukatzeko, baina bukatutakoan master bat egitea gustatuko litzaidake. Urte hauetan argi ikusi dut diseinu inguruko ikasgaiak direla gehien interesatzen zaizkidanak, orduan masterrean ere horren inguruan gehiago espezializatzeko gogoa dut.

Joanes Igeregi Hizkuntzen eta ekologiaren ekintzailea

«Oinarriak jarri behar ditugu euskararen erreprodukziorako»

Krisi ekologikoak euskarentzat ekarriko dituen erronken eta aukeren inguruko hausnarketa proposatzen du Joanes Igeregi Santamaria sopeloztarrak. «Euskararen kolapsoa ala kolapsoaren euskara?» izena daramaten berbaldietan, Sukar Horia taldeko kideak iraganari erreparatuz, besteak beste, bioaniztasunaren, ekologiaren eta hizkuntza zein kultura txikien biziraupenari buruzko lotura egiten du.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Zein da honen guztiaren abiapuntua? Iaz egin nuen Euskararen Jabekuntza, Kudeaketa eta Hizkuntza-praktikak XXI. Mendean masterraren amaierako lanetik dator. Intuizioa neukan krisi ekologikoak gizarte antolamenduan eragina izan zezakeela, beraz, euskararengan ere bai, edozein gizarte antolamenduk eragiten dielako bertan bizi diren hizkuntzei. Horregaz batera, krisi ekologikoagaz lotutako kolapsoaren aukera ere aipatzen da askotan, eta hortik sortu zen hitz jokoa, hau da, euskara etor daitezkeen gizarte aldaketa horien ondorioz kolapsatu daitekeen edo euskara egokituko ote den krisi ekologikoagaz etorriko den gizarte berrira.

Beraz, krisi ekologikoak euskararen desagerpena ekar dezakeela uste duzu? Bai; edo hori, edo egoera berri horretara egokitzea, azkeneko milaka urteetan egin duen bezala. Euskarak egokitzeko etengabeko ariketa bat egin behar izan du: gure lurraldeko gizartea eraldatzen joan da eta euskarak aldaketa horietara egokitzen jakin behar izan du; euskal kultura birsortzen joan da, gizarte eredu berri horietan irauteko. Iruditzen zait etorkizunean ere horrelako bidea egin beharko duela etorriko diren gizarte aldaketetan bizirauteko. Lortu ezean, orduan etorriko lirateke euskararentzako arriskua, lehenago ere gertatu izan den bezala.

Euskararen bilakaera

«Euskarak izugarrizko ibilbidea egin du etorri diren gizarte eraldaketetara egokitzeko. Landa eremuetatik hirietarako migrazio prozesu masiboa eman zenean, euskara pasatu zen behiakaz eta txakurrakaz berba egiteko pentsatzen zen hizkuntza bat izatetik, lantegietan, bankuetan, unibertsitatean edo hedabideetan erabiltzeko hizkuntza bat izatera»

Beraz, berritu ala hil arteko kontua da? Azken finean, hizkuntza batek erantzun behar die gizartearen momentuko beharrei, eta euskalduntzen gabiltzan belaunaldi askok hizkuntzarekiko atxikimendurik ez daukate, beraien eguneroko bizitzako funtzio zentral batzuk betetzen ez dituelako; eskolan eman diegu hizkuntza, baina eskolatik kanpo gaztelaniaz bizi dira. Beraz, euskal komunitateak pentsatu beharra dauka hizkuntzak zein funtzio bete behar dituen bere herritarrak euskaraz bizi daitezen.

Zentzu horretan bidea egiten ari garela uste duzu? Iruditzen zait azken 50 urteetan euskarak izugarrizko ibilbidea egin duela etorri diren gizarte eraldaketetara egokitzeko. Batez ere, 60. hamarkadako euskalgintza prozesuan jartzen da fokua, sasoi horretan gizarte aldaketa oso handiak gertatu zirelako Euskal Herrian: landa eremuetatik hirietarako migrazio prozesu masiboa eman zen, eta jende gehienaren bizimodua asko aldatu zen belaunaldi gutxitan. Orduan, euskara landa eremuetan bizi zen, baina prozesu nahiko arrakastatsua egin zuen hiriguneetara salto egiteko, eta pasatu zen behiakaz eta txakurrakaz berba egiteko pentsatzen zen hizkuntza bat izatetik, lantegietan, bankuetan, unibertsitatean edo hedabideetan erabiltzeko hizkuntza bat izatera. Egokitze ariketa horretan *impasse* batean

gaude orain, azken urteotako globalizazio masiboak izugarrizko erronkak ekarri baitizkio euskarari, eta horiei erantzuten asmatu beharko dugu ere. Jende askok ziklo baten amaieran gaudela esaten du; zalantza barik, euskalgintzak lorpen handiak izan ditu azken hamarkadetan, baina alarma batzuk ere pizten dabiltza.

Zeintzuk bidetik uste duzu eman beharko litezkeela aldaketa horiek? Sozializatzeko bideak izugarri aldatu dira azken 20 urteetan. Nire mundualdi laburrean uste dut gure aitita-amonen bizitza osoan beste aldatu dela sozializatzeko modua. Txikitan, lagunakaz nola erlazionatzen ginen eta gaur gazteak nola duten egiteko modua era bat ezberdinak dira; plazatik mugikorrera pasatu gara. Hor bidegurutze zaila daukagula iruditzen zait: batetik, uste dut ingurune digitalean eta teknologia berrien munduan euskara ezinbestean egon behar dela, baina, bestetik, gerta daiteke hamarkada gutxira, egokitze-prozesu horretan ahaleginetan gabiltzala, agertokia berriro goitik behera aldatzea eta munduak antz gehiago edukitzea orain dela 40 urteko munduagaz gaurkoagaz baino; ez dut esan nahi denboran atzera egingo dugunik, baina izan daiteke zentzu batzuetan etorkizuneko munduak gure iraganagaz antzekotasun gehiago izatea, orainaldiagaz baino.

Gaur egun, aurreikuspenak egitea ez da batere erraza, baina zein da zure ikuspuntua? Ez nuke esango txarrera goazenik, baina bai kontsumo gutxiagoko gizarte batera goazela, energia eta material gutxiago izango duen mundu batera, hain zuzen, eta horrek hainbat kontutan sinplifikazioa ekarriko duela eta modu lokalago batean biziko garela. Hori txarrera joatea da? Agian asteburu-pasa Berlinera joatea amesten duen pertsona batentzat bai, baina ez dut uste bizimodu txarragoa eragingo duenik halabeharrez. Modu lokalago batean bizitzea euskararentzako mesedegarria ere izan daitekeela uste dut, komunikabide lokalek eta tokiko kulturgintzak ere indar gehiago izango luketen bizimodu bat izango litzatekeelako. Azken hamarkadetan, mundu globalago batera joan gara, gero eta interkonexio eta mugikortasun handiagoagaz, baina horren eraginez inoizko hizkuntza eta kultura aniztasun galerarik handiena ere izan dugu; beraz, uste dut lokalago bizitzeak euskarari ere mesede egin diezaiokeela. Globalizazio horretan atzera egiteak ekarri dezake kultura eta hizkuntza txiki horiei arnas hartzeko aukera bat ematea.

Igeregik hainbat

Hurrengo berbaldiak

Abenduan Algortako Azebarrin egon zen Igeregi, eta urtarrilaren 26an Areatzan egongo da Arratiako Berbalagunen eskutik, eta 30ean Arrasaten, AED euskara elkarteagaz.

Iraganeko gizarteei begirada ere proposatzen duzu horretarako, ezta? Gure inguruko kolapsoei erreparatuz, nabarmenena Erromatar Inperioaren erorketa da. Orduan, latinak hartzen zuen ingurutik 40 hizkuntza azaldu ziren; beraz, krisi ekologikoaren ondorioz etorri daitekeen desazkunde horregaz gertatuko denaren ideia bat egin dezakegu. Edonola ere, iruditzen zait kultur aniztasun handiagoko mundu batera goazela, baina horrek ez du esan nahi euskararen biziraupena bermatuta dagoenik. Horregatik, iruditzen zait gaur egun oinarriak jarri behar ditugula euskarak bere erreprodukzioa bermatuta izan dezan. Hala ere, krisi ekologikoak B aurpegia ere badauka eta euskararen biziraupena bermatzen duten baliabide asko arriskuan egon daitezke. Adibidez, gutako asko eskoletan edo euskaltegietan euskaldundu gara, baina ez dakigu horrek etorkizuna bermatuta izango ote duen; izan ere, ongizate-estatua bezala

urte eman ditu Guatemalan, Garabide elkarteagaz, hango hizkuntza indigenen errealitatea aztertzen.

ezagutzen dugunaren baliabideak geroz eta urriagoak dira, eta bizimodu sinpleago batera jotzeak suposatu dezake hezkuntzan urte gutxiago ematea edo euskararentzako baliabide gutxiago egotea.

Guatemalan eman dituzu hainbat urte Garabide elkarteagaz hizkuntzen inguruan lan egiten. Nola ikusi duzu hango errealitatea? Deigarria egin zitzaidan hemen XX. mendearen hasiera gertatutako prozesuaren oso antzekoa bizitzen ari direla gaur egun. Orain arten, Guatemalakoa gizartea oso tradizionala eta nekazaria izan da, baina mundu hori desagertzen ari da umeen eskolaratzeagaz batera: ikasketak egiten dituzten gazteak hirietara joaten dira landa inguruan egin ezin ditzaketen lanpostuen bila, eta, horren ondorioz, euren hizkuntzen erreprodukzioa desagertzen ari da. Komunitate askotan ikusi dut aitona-amonak maia hizkuntzan elebakarrak zirela; haien seme-alabak elebidunak, gaztelera eta maia zekitela, eta hirugarren belaunaldiko gazteek gaztelera bakarrik zekitela. Zentzu horretan, esan daiteke telebistak eta eskolak lortu dutela 500 urteko kolonizazioak lortu ez duena, eta hor ikus daiteke globalizazio-prozesuak zer nolako indarra eta eragina duen. Guatemalako kasua hurbiletik ezagutzen dut, baina Latinoamerika osoan antzeko zerbait gertatzen ari da. Adibidez, Evo Moralesen agintaldian, Boliviako hainbat hizkuntza galdu dira, eta ez dut uste Moralesen gobernua indigenista izanik euren errua edo asmoa hori denik.

Hainbat borroka elkarlotuta

«Garrantzitsua da bakoitzak bere borroka defendatzea, kontziente izanda besteen borrokakaz nolako lotura dagoen eta elkarri laguntzeko aukera dagoela kontuan hartuta»

Sukar Horia elkarteko kidea zara ere. Komentatzen duzunaren inguruan zein da zuen planteamendua? Gure helburua da ikusaraztea krisi ekologikoak zer-nolako eragina eta lotura duen gizarteko beste dimentsio batzuetan. Pentsatzen dugu krisi ekologikoari irtenbidea bilatzea ez dela nahikoa, hori justua eta parekidea ere izan beharko delako; beraz, iruditzen zaigu oso lotuta dagoela klase sozialen arteko gatazkagaz. Adibidez, horrelako krisi bat dagoenean, ikusten dugu emakumeek beti hartzen dutela euren gain zaintzaren lana, eta horrek krisi ekologikoa feminismoagaz ere lotzen du. Hitzaldian ere aipatzen dugu lotura bat dagoela kultur aniztasunaren eta naturagaz harremanak izateko dugun ohituraren artean; garrantzitsua da ekologismoak bat egitea gizarte eraldaketa bultzatu gura duten bestelako mugimenduakaz, ekologismoagaz zuzenean lotuta egon ez arren: etxebizitza edo langile sindikatuak, mugimendu feminista, auzo elkarteak... Krisi ekologikoari irtenbide justu eta parekide bat eman behar badiogu, askapen mugimendu ezberdinen arteko loturaren bitartez izango da, ezin baitugu bakoitzak gure borroka modu isolatuan egin.

Zuk hizkuntza eta kultura txikituak eta ekologismoa bateratzen dituzu; zein da zure hipotesia? Ikusi da munduko toki berdinetan biltzen dela biodibertsitate eta hizkuntza aniztasunik handiena; ez dagoena argi da kultura indigenek daukaten biodibertsitatea mantentzeko gaitasunagatik edo biodibertsitate oparoaren ondorioz ematen den edo ez hainbeste kultura ezberdinen biziraupena. Bestela esanda, egin dudan ikerketa txiki honetan ikusi ahal izan dut oro har egitura dominatzaileak eta bereziki inperio handiak sortu diren lekuetan bai biodibertsitatea, bai kultura aniztasuna ere suntsitu direla; beraz, hor dominazioaren logika komun bat ikus daiteke, eta askapenaren logika komun batekaz egin beharko diogu aurre horri. ◂

Urtarril-otsaila

Berango

Urtarrilak 22, domeka

Antzerkia: *Grimm anaien parkea*

18:00 | Berangoko Antzokian

Grimm anaien ipuinetako pertsonaiak gogoratzeko antzezlana.

Urtarrilak 28, zapatua

Kontzertua: La Carroceria

19:00 | Berangoko Antzokian

60ko eta 70eko hamarkadetako pop-rock abesti ezagunak.

Urtarrilak 29, domeka

Txotxongiloak: *Gure kanoa*

18:00 | Berangoko Antzokian

Abba, Senegaleko arrantzale familia batean jaiotako umearen istorioa.

Erandio

Urtarrilak 22, domeka

Antzerkia: *Sexberdinak*

19:00 | Merkatu Zaharrean

Maitasuna, sexua, bakardadea eta jendearen aurreiritzien inguruko antzezlana.

Urtarrilak 29, domeka

Kontzertua: Anaut

18:00 | Josu Murueta kultur etxean

Otis Redding musikaria abiapuntu duen Soul kontzertua.

Otsailak 10 eta 11

GURE! jaialdia

18:00 | Josu Murueta kultur etxean

Lehen aldiz egingo den diziplina anitzeko jaialdia: musika, antzerkia, erakusketak, kirol-lehiaketak...

Getxo

Urtarrilak 26, eguena

Literatura solasaldia: Maddi Ane Txoperena

19:30 | Villamonte kultur etxean

Ez erran inori liburuaz arituko da egilea.

Urtarrilak 26, eguena

Ase Bertsoz

19:30 | Azebarri kultur elkartean

Urtarrilak 27, barikua

Kontzertua: My Greenwich Village Stories

21:00 | Muxikebarrin

Joshua Edelman Triok antzinako jazz klubetako doinuak ekarriko dituen emanaldia eskainiko du.

Urtarrilak 29, domeka

Dantza: *Sonoma*

19:30 | Muxikebarrin

Soinuaren gorputza eta gorputzaren soinua.

Otsailak 1, eguaztena

Berbaldia: *Irakurle ona=ikasle ona*

17:30 | Zabala ikastetxean

Gorka Aurre Neurotrainer eta Garapen Intelektualeko aditua, irakurketak duen garrantziaren inguruan arituko da.

Otsailak 11, zapatua

Antzerkia: *Hobe Ixilik!*

19:30 | Muxikebarrin

Gaur egun, eztabaida dantzan dago, non eta nola eztabaidatzen den beste kontu bat da.

Otsailak 17, barikua

Abra Sariak

19:00 | Azebarri kultur elkartean

Bertsolariak: Peru Irastorza, Ander Sarriugarte, Irantzu Idoate, Beñat Astiz, Maddi Aiestaran eta Maddi Agirre.

Gorliz

Urtarrilak 25, eguaztena

Solasaldia: Uxue Alberdi

10:00 | Erakusgelan

Idazlea eta bertaratzen direnak *Dendaostekoak* liburuari buruz arituko dira.

Leioa

Urtarrilak 27, barikua

Musika: Xabi Aburruzaga

20:30 | Kultur Leioan

Aurrez Aurre, Aburruzagaren seigarren lanaren emanaldia.

Urtarrilak 29, domeka

Antzerkia: *Aurkitu gabeko altxorra*

18:00 | Kultur Leioan

Familia guztiarentzako piraten abentura-istorioa.

Otsailak 3 eta 4

Antzerkia: *Moria*

20:30 | Kultur Leioan

Bi emakume errefuxiaturen eta haien familien istorioa.

Otsailak 10, barikua

Kontzertua: Guda Dantza

20:30 | Kultur Leioan

Plentzia

Urtarrilaren 16tik otsailaren 2ra

Erakusketa: Ana Isabel Portillo eta Florio Orive

Goñi Portalen

Urtarrilak 23, astelehena

Magia tailerra

17:30 | Goñi Portalen

Plaza mugatuak, 4-11 urte bitarteko umeentzako.

Sopela

Urtarrilak 28, zapatua

Erakusketa eta berbaldia: *Meazuri*

18:00 | Kurtzio kultur etxean

Urtarrilaren 2tik 28ra Dark Red Team argazkilaritza-taldearen erakusketa egongo da, eta, azken egunean, hitzaldia eskainiko dute.

Abenduak 24, barikua

Antzerkia: *Hondamendia*

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Artedrama konpainiaren helduentzako antzerkia.

Urtarrilak 27, barikua

Dantza: *Yarin*

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Yarin bihar hitzaren sinonimoa da, eta ondokoaren leihoari egiten diogun begirada konplizea.

Urtarrilak 27, barikua

Musika: *Desconcerto*

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Orthemis-Nova Orquestra Cambra Empordà taldeak munduko bederatzi txokotatik dakartzan doinu eta dantzak: kolorea erritmoa, umorea...

Otsailaren 1etik 28ra

Argazki-erakusketa: *Minbizia*

Kurtzio kultur etxean

Zendutako Olatz Vazquez argazkilari sopeloztarraren lanaren erakusketa.

Urduliz

Abenduak 28, zapatua

Antzerkia: *Munduari itzulia 80 egunetan*

18:00 | Kultur etxean

Glu Glu konpainiaren familia osoarentzako antzezlana.

«Natorren bakoitzean gehiago maitemintzen naiz herrialdearekin»

IKER RINCON MORENO ▶

Oraingoa ez da lehenengo aldia Leire Azkargorta algortarra Errusiara doana; are, 2011n errusiera ikasten hasi zen eta, bere jarioa hobetu guran, bederatzi aldiz egon da han. «Ordutik izan dut Errusian bizitzeko grina, eta hona etorritako bidaia bakoitzean geroz eta gehiago maitemindu naiz herrialdearekin», diosku. Itzulpengintzan eta Interpretazioan graduatua eta Nazioarteko Harremanetan masterduna, bi urtez ibili da tokiko Etxepare Institutuagaz lanean euskara irakasle; orain, aldiz, bere kabuz ari da lanean han, itzultzaile lanak egiten, eta ikasten, «B2-C1 mailako errusiera ikastaroa egiten ari naiz unibertsitate publiko batean».

Ukrainaren eta Errusiaren arteko gerra denon ahotan egon den honetan, Azkargortak dio «oso gustura» dagoela han, «egoera ikusita kontrakoa pentsa daitekeen arren». Hala ere, herrialdea gerran murgilduta dagoela-eta, aitortzen du askotan zientzia-fikziozko nobela batean sartuta dagoela dirudiela: «Nahiko emozio biziak sentitzen ditut albisteei eta horien ondorioei hemendik begiratzen diedanean».

Moskun dago egun, Errusiako hiriburuan, eta azarotik elurrez inguratuta dago, «zero azpiko tenperaturak dira ohikoenak orain», hala ere, inoiz Euskal Herrian hotz gehiago izan duela dio, «hezetasunagatik». Han, ikustea derrigorrezkoa den Plaza Gorriaz gainera, beste hainbat leku interesgarri daudela dio, hala nola parkeak, Kosmonautikaren museoa, metro geltokiak –denak dira desberdinak eta erdigunekoak oso dotoreak dira– eta Moskuko Unibertsitate Estatala.

Jan-edanari dagokionez, Errusian vodka baino gauza gehiago hartzen dela azpimarratzen du: «Te asko edaten dute, guk kafea bezainbeste, edo gehiago». Arrain freskoa, baina ia ezinezkoa da aurkitzea han; izoztua, kontserbakoa edo lehorra izaten da normalean, «lehorra askotan erabiltzen dute vodkarekin batera jateko». Guk errusiar entsalada deritzoguna ere leku askotan aurki daiteke han, «nahiz eta haiek *salad olivié* esaten dioten». ◀

Leire Azkargorta Mintegi

Nongoa
Algorta.

Adina
30 urte.

Zertan dabil
Errusiera ikasten eta lanean.

Noiz heldu zinen?
2022ko irailean.

Noiz arte?
2023ko ekainera arte.

Lurraldea
Errusia.

Azalera
17.125.191 km².

Hiriburua
Mosku.

Biztanleria
145.478.097 (2022).

Hizkuntzak
Errusiera da hizkuntza ofiziala eta gehien erabiltzen dena. Hala ere, Errusia nazio eleaniztuna da; 100 eta 150 hizkuntza inguru hitz egiten dira herrialde osoan.

Moneta
Errubloa.

Lehen/Orain **Algortako Portu Zaharra, Aretxondoko aldapa**

ITURRIA: FOTO RIKARDO

Uribitakora

TESTUA
Jagoba Pereda Txopitea

DOINUA
Aita izena

ARGAZKIA
Hodei Torres

Sutea

Gure kostalde ta mendietan
dana pinu ta eukalipto.
Le(he)ngo aritzak, pago ta arteak
desagertuaz betiko.
Lurzorua dau siku-sikua
ta animaliak kitto!
Natura hondatuz betetzen deurez
diruz hainbeste poltsiko...
Banengon ba honek ez joskuela
ezer onik ekarriko!

Halau suterik ez da ikusi
inguruan egundaino;
aldapa gora su garra gorri,
txinparta eta ke laino.
«-Badatorrela! Helduko al da
aitxitxen etxalderaino?»
Azkenerako haizea aldatu
egin da, eskerrak... Joño!
Gatza izango da erretakoa
berreskuratzea baino...

Gureta ala gure barik dan
jakiteko ezinean,
mafioso asko ibilten baita
eraikitzeko afanean.
Interesa nork eduki leike,
nor egongo dan atzean??
Norbaitek sua sortu dauela
jakingo dogu azkenean,
hotela eta denda mordoa
iminten dabezanean!!

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Blessure

«Oi! talde gisa sailkatzeko nahiko bigunak gara»

TESTUA: **ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO**
ARGAZKIA: **BLESSURE** ▶

Eiffel dorrea, krepeak eta goi mailako sukaldaritza bakarrik zegoela uste genuen gure ondoko herrialdean, baina urteak daramatzate punk/oi! doinu berri eta bereziak kaleratzen. Entzuleen oso erantzun positiboarekin, eszenari haize berria ekarri diote, eta horren influentzia handia dute oraingoan gurera ekarri ditugun Blessureko lagunak.

Nortzuk zarete Blessure? JOKIN: 2017an sortu zen punk/oi! talde bat da, gaur egun Zaidak, Angelek, Timéok eta nik (Jokin) osatzen duguna. Bilbon bizi ginen denak momentu hartan eta Frantziako oi! eszena oso indartsu zegoen, eta gu horrelako zerbait egiten saiatu ginen, kar kar.

Zer dela eta izen hori? J.: Izen motz bat bilatzen genuen, ez dakit nola bukatu genuen Blessurekin. Egia da Rixeren «Coups & Blessures» abestia erreferentzia bat izan zitekeela.

ZAIDA: Blessure, edo Zauria izango litzatekeena, nahiko lotzen gaituen izena da. Oi! talde gisa sailkatzen gaituzten talde bat izateko nahiko bigunak gara, eta gure abestietan gai intimo eta desberdinez hitz egiten dugu, garagardo klasikoaz, lankideez eta tabernako ostiez baino.

Zelan eroaten duzue taldekideak leku berekoak ez izatea. Logistikoki zailagoa izango da, ezta? TIMÉO: Ahal dugun guztietan elkartzen saiatzen gara, batez ere Jokin, Angel eta hirurok, denok Euskal Herrian bizi baikara, eta gero instrumentala prest izaten dugu Zaidarekin entseatzen dugunean.

Z.: Zirkunstantzien arabera, aurrerapenarekin antolatuz, etxetik edo Timéok dioen bezala saiatzea, ahalik eta gehien elkartzen. Urteak daramatzagu elkar ezagutzen, eta nabari da; nahi dugunaren ildo beretik gabiltza, baita nahi ez dugunarena ere. Oso zaila da irudikatzea kideak sakabanatuta dituen banda baten etorkizuna ikustea, baina gure kasuan eragozpen txiki bat besterik ez da.

Kontzerturik etorkizunean?

Kontzertu batzuk ditugu datozen hilabeteetan. Hiru datako bira txiki bat egingo dugu Frantzian otsailean, laster iragarriko duguna; Frantzia Blessurekin zapalduko dugun lehen aldia izango da. Irailean, Portugalera joango gara, Fatela Sonikara, beste euskal talde batzuekin. Euskal Herrian ere kontzertu batzuk prestatzen ari gara, noski.

Oso musika berezia egiten duzue, Oi! frantsesaren kutsuarekin. Zer dela eta? J.: Oi! frantsesa berezia iruditzen zaigu, hizkuntzaren melodikotasunarengatik-edo oso dotore geratzen da. Egia da, gure frantsesa iruzur hutsa dela; hala ere, orain gure bateri-jole berria, Timéo, Tours-ekoa da, eta abesti berrietan frantsesa hobetu dugula esan dezakegu.

T.: Egia da jotzera goazenean autoa frantsesekoikasgela bihur daitekeela. Baina Jokinek eta Angelek ikasteko gogo handia dute, eta Zaidak ahalegin handia egiten du ahoskerarekin.

Epe laburrera proiektu berririk ba al duzue? J.: Bai! Otsailean kasete bat aterako dugu lau abesti berriekin, gure LP berriaren zizka-mizka izango dena.

Zelan bizi izan zenuten abenduan Algortan izandako Barne Barnetik jaialdia? Z.: Egia esan, oso ondo pasatu genuen. Kontzertuak egin ziren tokia, lehen sentsazioan, asko inposatzen zuen, baina jotzen hasi eta jendearen berotasuna sentitu ahala urduritasuna pasa zitzaigun. Antolakuntza bikaina izan zen, eta uneoro zaindu gintuzten. ◀

Arrate Izagirre Eten / Zaldi Ene proiektua

«Barruko marapiloak inork baino hobeto sumatzen dituzte zaldiek»

Erretiratutako zaldiakaz lanean hasi zen Arrate Izagirre, eta, orain, Urdulizen duen zalditegian horiek baliatzen ditu umeek natura hurbiletik ezagutu dezaten eta nerabeakaz terapia egiteko.

ANDER ZARRAGA ▶

Arrate Izagirre Eten / Zaldi Ene proiektuko zaldiez arduratzen da. HODEI TORRES

Eten / Zaldi Ene proiektuko zaldien arduradunetako bat da Arrate Izagirre, eta, azpimarratu duenez, euren hasierako asmoa hipiketan jubilatutako zaldiak berreskuratzea zen: «Zaldiak zahartzen direnean, hipika normaletan eman ezin dizkieten beharrei erantzuten saiatzen gara hemen». Gaur egun, pertsonakaz ere egiten dute lan, berak dioenez, «psikologoari sentitzen duzuna ezkutatu ahalko diozu, baina zaldi bati ez».

Urdulizen, Santa Marinako haitzen azpian dagoen zalditegiak 35.000 metro koadro ditu, zaldiak egun osoan aske ibil daitezen; «hipika gehienek ez dute guk dugun tokia zaldi guztiak aske edukitzeko, txandakatzen dituzte eta denbora gehiena ukuiluetan pasatzen dute. Beraiek egoteko leku minimoak dira horiek eta ez da naturala hainbeste ordu hor barruan egotea».

Zentzu horretan, animalien ongizate psikologikoan asko erreparatzen dutela dio Izagirrek: «Jabeek ondo zaindu arren, aspektu psikologikoari ez zaio behar bezalako garrantzia ematen». Horren eraginez, animaliak estres askogaz joan ohi zaizkie eta etsipen ikasia deritzona bereganatzen dute, hau da, egoera emozional zailen aurrean automatikoki erantzuten ikasten dute; «altzariak bezalakoak dira».

HIPOTERAPIA. Pertsonen jarrera aldatzen denean, animalien portaera oso bestelakoa dela dio Izagirrek, oso animalia sentikorrak eta argiak baitira. Zentzu horretan, pertsonentzako zaldiakaz lan egitea oso terapeutikoa dela dio, «baina lehenik, zaldiak ondo egon behar dira».

Egiten dituzten saioetan, Izagirrek zaldien erreakzioak neurtzeaz arduratzen da. «Gure barruan dauden marapilo horiek beste inork baino hobeto sumatzen dituzte zaldiek, nolabait esateko, beraiek eskaner energetiko baten modukoa dute eta euren ingurua oso ondo irakurtzen dakite, baita pertsonok sentitzen duguna ere».

Bertara doazen gaztetxoak 6 eta 12 urte bitartekoak dira, baina ohiko hipiketan ez bezala, «zaldiak bestelako ikuspuntu batetik ikusten dituzte, hasieran, ez baitira beraien gainean jartzen». Lehenik, animaliak garbitu, paseatu eta jatekoa ematen diete eta horrek beste ikuspegi bat eskaintzen diela dio: «Gainean ez daudenez, zaldiei aurpegia ikusten diete eta konturatzen dira gu bezala keinuak dituztela eta komunikatzen direla».

Era berean, oso animalia handiak direnez, umeek frustrazioa eta mugak kudeatzen ikasten dute, «gaur egun, umeentzako badirudi dena berehala izan behar dela, baina zaldiekin horrek ez du funtzionatzen, eta umeek laguntza eskatu behar dute». Gainera, bertara doazen bigarren edo hirugarren egunean «umeen txipa» nabarmen aldatzen dela dio, baita indibidualtasun eta berehalakotasun hori galtzen hasi eta laguntza eskatzen dutela eta elkarregaz lanean hasten direla ere. ◀

Hipoterapia nerabeakaz

Gazteakaz egiten dituzten jardueretan, besteak beste, zaldiak baliatuz inteligentzia emozionala jorratzen dute, eta, horretarako, Taupada izeneko taldea dute, psikologo eta hezitzaile batek lagunduta. Hipoterapiaren bidez, zaldiei esker nerabeak adierazten ez dituzten sentimendu horiek azaleratzen direla dio Izagirrek.

Roge Blasco Lemoizko kala gogoratuz

«Basordas porlanagaz estali eta paradisu hura ezabatu zuten»

Zentral nuklearra eraiki aurretik, Basordaseko kala nolakoa zen eta inguruak dauzkan aukerak aurkezteko lana egin du Roge Blasco kazetariak lekua hurbiletik ezagutzen duten bi lemoiztarregaz.

ANDER ZARRAGA ▶

Elortegi eta Blasco errepotajearen *frame* batean. ROGE BLASCO

Roge Blasco kazetari getxoztarra gogoratzen da bere amona gaur egun zentral nuklearra dagoen lekutik 500 metrora zegoen Momatai baserrian bizi zela: «Etxea Basordaseko kala ondoan zegoen, Armintzako hondartzaren antzekoa zena, baina askoz handiagoa eta ederragoa; gainera, erdian, kutsu magikoa ematen zion harkaitz bat ere zegoen». Txikitako bizipenak gogoratuz, Blascok dio oso leku basatia zela, eta errepiderik ez zegoenez, Armintzatik oinez joaten zirela. «Leku izugarria zen, bizitza naturalez betea eta ia jenderik gabekoa», oroitzen du.

Hala ere, 1972ko apirilaren 18an, inguru horretan zentral nuklear bat egiteko proiektuari ekin zioten, eta, adierazi duenez, «txikitako paradisu hura goizetik gauera ezabatu eta kala porlanagaz estali zuten». Inguru horren memoria berreskuratu guran, Blascok Valentin Elortegi tokiko baserri bateko bizilaguna eta Iosu Alberdi Etzandarri euskal mendi taldeko kidea elkarrizketatu ditu, besteak beste, belaunaldi berriei inguru hori ezagutzera emateko.

Elortegik, zentraletik oso hurbil geratzen den baserri bateko bizilaguna izateaz gain, «Lemoizko Zentral Nuklearraren kultur ondaretze prozesua» izeneko tesia ere egin zuen. «Ideia ona iruditu zitzaidan bertakoa den norbaitek inguru horretako bizitza eta Basordaseko kala nolakoak ziren gogoratzea», dio Blascok, gaineratuz Elortegik zentralaren etorkizunari buruzko gako batzuk ere eman ditzakeela. Lehen erreportaje horren izenburua *Basordas el no-territorio. Lurraldea ez dena* da. «Valentinek dio eremu hori existitzeari utzi zion toki bat dela, zentrala eraikitzen ari ziren garaian erabat militarizatuta egon zelako, eta bereganatu duen ospe txarragatik, oso ederra zen toki bat mapatik desagerrarazi zuten».

Lemoizko Etzandarri mendi taldeak antolatu ditu Roge Blascoren erreportajeen proiekzioak eta horren osteko mahai-inguruak. Elkarteak hainbat irteera antolatzen ditu, tartean, gazteek Lemoizko inguruak ezagutzeko eta euskaraz egiteko ibilaldiak.

Iosu Alberdi Armintzan bizi den bergararra elkarrizketatu du Blascok bigarren erreportajerako. Kazetariak dioenez, Alberdik ez zituen bizi izan zentralaren eraikuntza-prozesuko gatazkak, beraz, «ikuspegi garbiagoa dauka, eta inguruko altxor naturalak azaleratzeko lana egin du». Lemoizko itsaslabarrak. *Lemoizko itsaslabarrak. Zentral nuklearretik harago* izeneko bigarren erreportajeko protagonista Etzandarri euskal mendi taldeko kidea ere bada, eta ingurua ezagutzeko hainbat ibilbideren berri ematen du, hala nola itsaslabarrak, ur-jauziak eta eukalipto plantazioen artean oraindino geratzen diren harizti ikusgarriak. «Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko txangoak eta ibilaldiak egiten dituzte eta, era berean, Lemoizko txoko horiek erakusten dizkiete». Halaber, Alberdiren helburua da gune hori babes dezatela, batez ere, eukalipto-landaketek eragiten dituzten kalteak eragozteko.

Erreportajeak daborduko sare sozialetan ikus daitezke, baina gaiaren inguruko eztabaida pizteko asmoagaz, kazetariak eta protagonistek hainbat proiekzio eta solasaldi antolatu zituzten abenduko azken astean, Lemoizen eta inguruko udalerrietan. ◀

Urduliz Herri kirol desafioa

Nork irabaziko ote Amaderen eta Bilbaoren arteko apustua?

Beñat Amade getxoztarrak eta Eneko Bilbao kortezubitarrak herri kiroletako apustua itxi zuten urrian. Proba urtarrilaren 21ean jokatuko dute, 18:00etan, Urdulizko probalekuan.

Cannon jatetxean egin zuten apustua, urriaren 9an.

Beñat Amade getxoztarrak eta Eneko Bilbaok herri kiroletako apustu bat itxi zuten joan den urriaren 9an, Cannon jatetxean. Adostutakoaren arabera, proba urtarrilaren 21ean jokatuko dute, zapatuan, 18:00etan, Urdulizko probalekuan (frontoia). Denera, getxoztarrak HIRUKAri jakinarazi dionez, 2.000 euro jarri dituzte mahai-gainean.

Urtarrilaren 21ean, zapatuan, jokatuko duten desafioan, bizkaitarrek 100 kilogramoko bola 30 aldiz altxatu beharko dute; ondoren, 400 kilogramoko harria sei alditan gurutzatu beharko dute plaza –iltze–, giza-frogan; eta, azkenik, lau kilometro egin beharko dituzte korrika.

Beñat Amade getxoztarra Euskal Herriko eta Bizkaiko txapelduna da lasto-altxaketan, 85 kilo azpitik; gainera, azken urteotan pentatloietan dabil buru-belarri, eta, besteak beste, Bizkaiko lehenengoaren txapela jantzi zuen, Algortan, bere jaioterrian.

Bere aldetik, Eneko Bilbao Euskal Herriko txapelduna izan da giza-proban, 85 kilo azpitik, eta Bizkaiko txapelduna absolutuan. Munduko txapelduna ere izan da, eta, azken urteetan, harri-jasotzaile lanetan ari da, Getxoko Andra Mariko probalekuan entrenatuta.

Getxoztarrak bota zion erronka Bilbaori, elkar ezagutzen dutela aprobetxatuta. Amadek pentatloian aritzeko proposamena egin zion, bigarrenak, baina, aizkora baztertzea eskatu zuen, horregaz ausartzen ez zela esanez. Hala, egin beharreko lanak adostuta, lehia abiatu zuten.

Pentatloiek bost proba dituzte: harria jasotzea, giza-proba, aizkora, txingak eta korrika. Urdulizen jokatuko duten desafioak, aldiz, hiru proba izango ditu, baina pentatloiak hartzen dituenak handituta, pisuak, altxaldiak, iltzeak eta korrika egin beharreko kilometroak areagotuta. ◂

Getxo Sasoi Sasoian sariketa

Udalerriko kirolari onenak saritu dituzte Getxon

Saskibaloiko jokalari olinpikoa den Xabier Lopez-Arostegui izendatu dute Getxoko 2022ko Kirolari Onena. Saria eman zioten joan den urtarrilaren 11n, Getxo Sasoi Sasoian galan, Kirol Portuko itsas bidaien terminalean. Getxoztarrak Eurobasketa irabazi zuen Espainiako selekzioko jokalari bezala denboraldi bikain bat itxi ondoren, eta Valencia Basket taldean aritzen da gaur egun. Sari horren harira, Amaia Agirre alkateak gogoratu zuenez, «kirol praktikaren azpian dauden balioak bizitzako benetako eskola dira: eguneroko esfortzua, ilusioa, autoexigentzia eta etengabe hobetzeko saiakera, motibazioa eta zorigaiztoak gainditzea lehiaketa kirola praktikatzen duzuenoi definitzen zaituzteten balioak dira».

Promesen kategorian, banakako tituluak honako hauentzat izan ziren sarien XVI. edizioan: Getxo Igeriketa Bolue Kirol Elkarteko Irene Pera igerilariarentzat, Espainiako Haur Mailako Txapelketan 4 domina lortu baitzituen; eta Raspas del Embarcadero Arraun Taldeko Aitor Blanco arraunlariarentzat, brontzezko domina eskuratu baitzuen aulki mugikorreko 2022ko Espainiako Txapelketan, gazte mailako skiff modalitatean. Beste hainbat aitortza ere banatu zituzten. ◂

Erandio 2023 eta 2024

Erandio kirol egokituaren hiriburua izango da datozen bi urteetan

Erandioko kirol-instalazioak goi-mailako kirolarien prestakuntzarako teknifikazio-puntuak izango dira 2023an eta 2024an. Bertan prestatuko dira datorren urtean Parisen izango diren Paralinpiar Jokoetan parte hartzeko hautagaiak izateko borrokan egongo diren 26 euskal ordezkariak, baita bi urte geroago Milanen egingo diren Neguko Jokoetarako ere. Horretaz gain, aurten, sentsibilizazio kanpainak, formakuntzak eta lehiaketak egingo dituzte udalerrian, hala nola Altzagako kiroldegiko instalazioetan igeriketaliga, Euskadiko mahai-teniseko txapelketa edo boccia lehiaketak. Alkatea oso pozik agertu da, «hitzarmenak Erandion lehiaketa garrantzitsuak hartzea ahalbidetuko duelako». ◂

Jose Angel Rivera eta Aitor Rivera Aita-semeak eta judo-borrokalariak

«Aurten espero dugu tituluak etxera ekartzea»

Aita-semeak eta judo-borrokalariak dira Jose Angel eta Aitor. Iaz, 2022an, senior mailako Munduko Txapelketan aritu ziren, Krakovian (Polonia). Jose Angel hirugarren gelditu zen; Aitor, berriz, podiumaren atarian.

IKER RINCON MORENO ▶

Fisikoa eta teknika lantzen dute elkarregaz Jose Angelek eta Aitorrek.

Esperientzia eta sentsazioak oso onak izan dira; baina gehiago espero genuen». Berba horiekaz laburbiltzen dituzte Jose Angel Riverak eta Aitor Riverak Krakovian (Polonia) joan den irailean jokatutako senior mailako Munduko Judo Txapelketan bizi izandakoak. Aita-semeak dira biak, getxoztarrak, eta lehenengo aldia izan da mota horretako lehiaketan aritzen direnak, senior mailan, beteranoetan. Aitak bere kategoriako txapeldunaren kontra galdu zuen lehia, borrokaldia amaitzeko 15 segundo zeudela egindako akats baten ondorioz: «Borroka irabazten ari nintzen, baina amaitzear geundela akats egin nuen, eta nire aurkariak aprobetxatu zuen. Horren ondorioz, urrea irabazteko borrokalditik kanpo gelditu nintzen». Aitorrek, aldiz, brontzea irabazteko pasea galdu zuen, eta oroitzapen gazi-gozoa du une horretakoa, «zelan galdu nuen ikusita». Emaitzok ikusita, baina, aita-semeek argi dute datorren txapelketan titulua eskuratzeko maila dutela, «edo dominaren bat edo beste etxera ekartzea, behintzat».

Gorabeherak izan dituzten arren, ia bizitza osoa eman dute judoan Riveratarrak. Aita 17 urte zituela hasi zen kirol horretan, «berandu samar, judoa oraindino ezagutzen ez zenean inguruotan». 32 urte zituenerako seigarren *dan*-a atera zuen –gerriko zuri-gorria–, eta orduantxe laga zuen, «lan kontuengatik». Lehiatzeari utzi zion, baina, aldiz, Euskadiko senior mailako selekzioaren ardura hartu zuen, eta hala ibili zen bi urtez. Bitartean, eta oraindino ere, judo-eskolak ematen ditu Askartza ikastetxean, eta oraintsu beteranoakaz lehiatzeari ekin dio. Aitor, semea, berriz, «aitak eraginda» hasi zen mundu horretan, hiru urte zituela, eta, orain, elkarregaz entrenatzen dute Algortako Portu Zaharrean dagoen Judo Getxo klubean, baita lehiatu ere. Izan ere, ez dute baztertzen aurten, 2023an, Munduko Txapelketara aurkeztea berriro ere, «ekonomikoki garesti ateratzen zaigun arren».

Lehiarako gogoa

Judo-borrokalari gisa gorabeherak izan dituzten arren euren bizitzetan, orain, senior-mailan lehiatzeari ekin diote, elkarregaz, Jose Angelek eta Aitorrek. Fisikoa euren gimnasioan lantzen dute normalean, eta, teknika, berriz, Getxo Judo klubean.

Diotenez, judoan lehiatzea ez da merkea, ez dagoelako apenas diru-laguntzarik horretan aritzeko. «Oso jende gutxi bizi da kirol honetaz», deitoratzen dute. Berbarako, Krakoviako txapelketan aritzeko 1.000 euro inguruko inbertsioa egin behar izan du bakoitzak, «hiru egun bertan egoteko, lehian». Hala ere, argi dute, «ahal dugun neurrian», aurrera jarraituko dutela, «plazera handia delako guretzat».

Daborduko lanean ari dira datozen txapelketei begira, hala nola Espainiakoak eta Europakoak. Izan ere, iaz bizi izandakoen ondoren, uste dute oraingoan dominaren bat edo beste ekar lezaketela etxera, baita txapela jantzi ere. «Iazkoa garai txarrean izan zen, udatik bueltan, eta, horregatik, oso zail izan genuen entrenatzea, uztail-abuztuan oso jende gutxi dagoelako prestakuntza egiteko». Hori dela eta, hurrengo lehian, espero dute kide gehiagogaz txapelketa prestatu ahal izatea. ◀

Alkate-rroristak Uribe Kostan

MAITANE NEREKAN UMARAN Filosofia irakaslea

Berango-Algorta arteko mugan, «Ekoterrorismoa akatu» esaten zuen margoketa ikusi nuen behin. Uribe Kostako azken 20 urteotako gobernantza eta lidergo eredua deskribatzeko, horra hor berba borobila. Abestiak dioenez *«las cosas por su nombre»*.

Ekosistemen suntsiketan erreferente bilakatu gara eta 2023an urrezko domina Berangok du, zorionak! Barrikaren suntsiketa historikoa, Urdulizko ekozidio espresa eta Sopelako eko-degradazioa txiki gelditu dira berangoztar mandatarien eko-fobiari esker. Santa Anako deskalabru urbanistiko-ekologiko-estetikoa (bai, estetikoa ere; a ze orterada inolako kohesio estetiko formabako masa), erabat beharrezkoak diren lau supermerkatu mendia janda, basoak osorik jandako urbanizazioak... Munarrikolandako mendia erretzen da, alkateek eta diputatuek eukaliptoaren politika eko-terroristek bultzatzen dutelako. Bitartean, beste 4.000 bonba-etxe eraiki nahi dituzte Azkorri aldean, horietara heltzeko behar diren kotxe-bonbetarako errepideekin batera. Estres ekonomiko eta minbizi gehiago eta tomate osasuntsu bat landatzeko lekurik ez... eta beste hainbat opari eder. Hala ere, ez ahaztu; Aste Berdean kafe berdea hartuko dugu alkatearekin, eta hauteskundeetan gogoratu betikoak bozkatzen, gobernante onak. Maitasunez, urte barri on.

Denbora berriak datoz

JOSU ESNAOLA Helduen euskara-irakaslea

Gaztetxo ginela ezagutu genuen Olentzero, aurpegi zikineko zurrutero tripaundia. Jakin genuen Euskal Herriko zenbait txokotan tradizio luzea zuela, solstizioari lotutako ospakizunen parte zela, garai batean enborra baino ez zela, eta gure iruditerian bere lekua egin zuen.

Urte batzuetara, jendartearen estandarretara egokitzeko edo, basati itxura leundu zioten. Olentzero dotore eta txukunak hartu zuen ikazkin zarpailaren lekua. Bazterreko kontu bat izatetik Eguberrietako ospakizunen erdigunean kokatzera ailegatu zen.

Azkenik, berdintasunaren izenean edo, Mari Domingi agertu zaigu bere ondoan. Ez daukat argi laguntzailea, emaztea, bikotekidea, laguna edo zer demontre den, baina bikote hetero perfektuaren figura indartu baino ez duela egiten iruditzen zait. Gainera emakumea plazara ateratzen badu ere, bigarren mailan geratzen dela esango nuke, Olentzeroren gerizpean.

Ez ote litzateke egokiagoa Olentzero emakumea izatea? Non agertzen da gizonezkoa izan behar duela? Jakintzat ematen dugu, Jainkoa gizonezkoa zela edo beste hamaika kontu jakintzat eman izan ditugun legez. Ea 2023ko Olentzerok pausu hori ematen duen jendarte feminista eraikitzeko bidean.

Horoskopoa

Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Baliteke zure gorputza zaintzen hasteko unerik aproposena heldu izana. Ondo zaudela dirudi, baina gaixotasunak edonoiz ager daitezke.

Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Zergatik ez zara antzerki-munduan sartzen? Denak dituzu engainatuta, baina kontuz! Nork bere gezurrak sinestea oso tristea da.

Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Ahul ikusten zaizu; amata telebista eta atera zure baitan duzun guztia. Harritu egingo zaitu berrikuntza txiki horrek.

Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Azken boladan bizi izan duzun egoera larria bukatzear dago, eta ateratzen ez ziren gauzak apurka-apurka aterako dira.

Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Zure bizitzak argi baten beharra dauka. Ilunpean zabiltza azken hilabeteotan eta, jakina, estropezuka zoaz aurrera.

Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Jakintsutzat daukazu zure burua, eta kontent zara horregatik, baina ez zara gai jakinduria hori besteen aurrean frogatzeko.

Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Lasai motel, oraingoa ez da zure sasoirik onena, baina maite zaituztenak ez dira horren errudunak, eta ez dute zure jarrera hori merezi.

Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Lasai egon, zure inguruan gertatzen ari diren istilu eta ika-mika guztiei probetxua atera zenieзaieke eta!

Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Egiozu errepasoa orain arte bizi izan duzunari. Balantzea erabat positiboa izan dela esan daiteke. Ez al da horrela?

Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Ez dut uste hain zaila denik zure ingurukoakaz ondo moldatzea. Jar zaitez besteen lekuan eta saia zaitez besteak ulertzen.

Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Ez zaitez horren materialista izan, joño! Gauzak ez dira materialetan neurtzen; noiz aseko zara? Lagunik gelditzen ez zaizunean?

Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Lanean dena ondo doakizun arren, baliteke etxean, hau da, familian, arazoren bat edo beste sortzea egunotan.

Euskararen baratzea... ezagutuz aldatzea! Joseba Santxo

Uraren egutegia

Urte berri on!' esan berri diogu elkarri urte zaharraren hondarrean. Baina zer aritu gara esaten benetan? Funtsean 'uraldi ona' opatzen ibili gatzaizkio bata besteari, baldin eta 'urte' berbaren etimologia ematen duen bezain gardena bada: ur+te (ur+aldi). Hala izatekotan, euriteen edota elur urtzeen arabera neurtzen zuten denboraren joana antzinako euskaldunek.

Urarekiko ohikuneak ezagun bezain aintzinakoak ditugu Euskal Herrian, besteak beste, Burundako Urdiainen oraindinokarren ere urte berriari ongi etorria emateko egiten dena: Urtats edo Urteberri eguneko gauerdian iturriko ura jasotzen dute bertako neska-mutilek pitxarretan eta herritarren artean banatu, jaso ahala edateko. Urteko lehen ur horrek gaitzak sendatzeko eta izaki gaiztoak uxatzeko balio duela sinesten dute, Jose Maria Satrustegi antropologo nafarraren esanetan. Haren arabera, gure arbasoek uste zuten zerutik euriaren bitartez datorkigun ura (ur goiena) lur barrenean aterpetzen dela (ur barrena), ondoren ibaien, latsen eta iturrien bidez etengabe azaleratzeko. Halaxe bada, ur horiek dira (goikoa eta barrukoa, goiena eta barrena), hain zuzen ere, erritu honetan gurtzen direnak. Ekandu horren berri ematen duten herri kopla ederrak entzungai ditugu sarean, Pantxoa eta Peioren bertsioan nahiz Olatz Zugastirenean, zein baino zein ederragoak (*Ur goiena, ur barrena*).

Urtea urtarotan ere bana daiteke. Lau dira egun mundu globalizatu honetako urtaroak, baina bi baino ez bide ziren lehenagoko euskaldunen pentsaeran: uda eta negua. Zorionez lexikoan bertan daukagu horren aztarrena: batetik, 'uda' hitzarekin osatutako terminoak (*udaberri*, *uda*, *udazken* edo *udagoien*), eta bestetik, negua. «Joan zen uda eta negua etorri da» dio Gabriel Aresti idazleak behin izkiriatu eta dagoeneko kanta bilakatu den poema ezagunak.

Bitxikeria: 'Neguri' toponimo edo leku izena R.M. Azkuek asmatu omen zuen Getxoko auzo ezaguna izendatzeko (lehenago inguru horri Aretxetaurre zeritzon), neguko hiria esanguarekin. Eta horren harian, arestian aipatu dugun Arestik esan ei zuen behinola hobe zukeela Azkuek Getxoko auzo horri, Neguri izena barik, haren bigarren abizenarena ipini bazion. Resurrección María Azkue Aberasturi zuen grazia osoa Lekeitioko euskalari handiak. ◂

Berba azoka

Ohikune
Erritua.

Urtats
Urteberri eguna.

Urteberri
Urteko lehen eguna. Urtats.

Lats
Erreka, ur-laster txikia.

Gurtu
Jainkotzat hartzen den norbaiti edo zerbaiti gorazarrea egin. Gur egin, jauretsi, adoratu.

Ekandu
Ohitura, aztura, usadioa.

Aztarren
Aztarna, arrastoa.

Izkiriatu
Idatzi.

Arestian
Orain dela gutxi, duela gutxi, aspaldi ez dela.

Grazia
Izen-abizenak, izen-deiturak.

Euskalari
Euskara aztertzen edo ikertzen duen hizkuntzalaria.

Zuen ekarpena ongarri zaigu: euskararenbaratzea@gmail.com

Zinez diot ***As bestas***

Piztu da piztia

2022an film onak ikusi ditugu, baina, nire ustez, bat egon da guztien gainetik: zaldien ordez Land Roverrak erabiliz western baten itxura duen film berezia.

IÑIGO ESTEBAN LEZKANO ▶

Hirietako gizarte-bizitza zorabiotsu eta bizi-azkarretik herri txiki eta bakartuetara doazen pertsonak daude, lasaitasun bila-edo. Aldi berean, kontrako bidea egiten dutenak ere badira, lasaitasun horrekin nazkatuta hirigune handietara lekualdatzen direnak. Badirudi bi mundu desberdinez ari garela, baina benetan kilometro batzuk bakarrik urruntzen dituzte. Halere, kontua da leku guztietan eta guztion barnean ez dela lege bera; noizbehinka beltza eta zuriaren arteko desberdintasuna lausotu egiten da. Enpatia sentitzen jakitea konplikatua da batzuetan, batez ere aurrean duguna ulertzen ez bada, eta zineman ere gerta daiteke.

As bestas

Jatorrizko izenburua: *As bestas*

Zuzendaria: Rodrigo Sorogoyen

Gidoilariak: Isabel Peña eta Rodrigo Sorogoyen

Antzezleak: Marina Foïs, Denis Ménochet, Luis Zahera, Diego Anido eta Marie Colomb.

Iraupena: 137 min

Batzuetan, film bera asko gusta dakioke pertsona bati, eta ondoan duen besteari ezer ere ez. Era berean, handik egun batzuetara, film horrek kontrakoa eragiten diezaioke pertsona bakoitzari.

As bestas-en kasuan, uste dut urrunago doala hori guztia eta ez duela inor epel uzten. Gehiago edo gutxiago gustatu arren, zirrara eragiten du ikuslearengan, eta amaierara arte erakartzen du.

Intentsitate handiko filma da, bai ekintzan, baita muntaian ere, une askotan deserosoa baina mendekotasuna sortzen duena. Tentsioan mantentzen zaitu eta suspense jarraitua lortzen du, benetan gertatzen dena ezkutatu edo ezkutatu barik .

Lan teknikoa eta interpretatzailea bikaina da lan honetan; are gehiago, Rodrigo Sorogoyenen zuzendaritzapean filmeko parte-hartzaile bakoitzak egindako lana txalotzekoa da. 2022 urtean zinema aretoetan ikusi ahal izan dugun filmik onenetakoa da, inolako dudarik gabe. ◀

Irakurrian ***Azken etxea***

Azken babes-lekuaren bila

Denbora luzez nobelarik argitaratu ez izan ondoren, Arantxa Urretabizkaia itzuli da *Azken etxea* eleberriaren narrazioarekin.

ARANTXA URRETABIZKAIA - PAMIELA ▶

Azken etxearen bila dabil eleberri honetako protagonista, bizitzaren azken arnasaldiaren bila, azken babes-lekuaren bila. Hendaia (Lapurdi) aldeko etxe bat begiz jo, eta harekin tematu da. Ez du bizimodu arrunta izan, eta ez dira arruntak izango azken etxe hori lortzeko egingo dituen ahaleginak. Tema horretan iraganeko mamuak, adiskideak eta hautuak orainaldikoekin korapilaturiko dira, elkar zelatatuko duten auzokideen giroan.

«Bukatu dute zopa kaskamotzak esaten duenean ez duela ulertzen bizitza luzatzeko irrika hori, irautea helburu bakar izatea. Beste isilune bat dator segidan. Kaskagorriak esaten dio irautea bizitzea dela, iraun nahi duenak bizi nahi duela eta horrek ez duela ezer txarrik, berak luzaroan bizi nahi duela. Beltzez jantzitako emakumeak zertarako galdetzen dionean, ordea, ez du erantzunik. Eten luze baten ondoren, ahotsa harroturik erantzuten du. Bizitzeko, besterik gabe, bizitzeko [...]».

Azken etxea

Egilea: Arantxa Urretabizkaia

Argitaletxea: Pamiela

Urtea: 2022

Orrialde kopurua: 160

Hizkuntza: Euskara

BIOGRAFIA APUR BAT. 1947an jaio zen Arantxa Urretabizkaia, liburu honen idazlea. Kazetari lanbidez, prentsa idatzian, irratian nahiz telebistan egiten du lan. Idazle gisa poesia idazten hasi zen eta eleberriekin jarraitu. Narratibaren alorrean, *Zergatik, Panpox, Koaderno gorria, 3 Mariak, Zuri-beltzeko argazkiak, Bidean ikasia* (Euskadi Literatura Saria, 2017) dira bere lanik ezagunenak, horiek guztiak gaztelaniaz eta beste hainbat hizkuntzatan argitaratu dituztenak, besteak beste, euskaraz.

Maitasunaren magalean poema liburuarekin lortu zuen Kritika saria 1982an, eta *3 Mariak* eleberriarekin sari bera 2010ean. Orain, denbora luzez nobelarik argitaratu ez izan ondoren, bueltatu da *Azken etxea* eleberriaren narrazioarekin. ◀

Hegatxibi edo pota handi bat lurreratu da Gorlizeko hondartzan

Aurreko abenduaren 28an, *Ommastrephes bartramii* espeziekoa izan daitekeen ale handi bat lehorreratu zen Gorlizko hondartzan, EHUko Plentziako Itsas Estazioaren (PiE) aurrean. Ibon Cancio ikerlariak animalia ikusgarriaren argazki hau atera zuen, Inuzenteen Eguna izan arren, txibia oso erreala eta handia zela frogatzeko. Zorionez, ia bi metroko luzera zuen animalia bizirik zegoen oraindino, eta PiEn egoitza duen Euskadiko hondartzen sareko kideek itsasora bueltatu zuten, bigarren aukera bat izan zezan. Espezie horretako animaliak bi metroko luzera izatera heldu daitezkeen arren, ez dira itsas hondoan bizi diren *Architeuthis* izeneko txibia erraldoiak bezain handiak.

© IBON CANCIO

Itsas sakoneko bisitari erraldoi bat Uribe Kostan

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA



Sudokua

Zer dugu sudoku taularen gainean? Bada, 2 azeri. Hain zuzen, erantzun horrek dituen hizkiak baliatu beharko dituzu sudokua osatzeko (2, A, Z, E, R eta I).

		Z	E		
E	2			I	A
	R			E	
	Z			R	
R	A			Z	E
	E	I	R		

Margotu



Baietz hamaika!

Aurkitu bi pinguinoen arteko aldeak. 11 dira guztira.





Mezu ezkutua

Klima aldaketak aztoratu egin du toki hotzetako fauna, eta bereziki gure pinguinoak. Hala ere, zentzuzko esaera zahar bat hartu dute biek ahotan. Zein da? Eman marrazkitxo bakoitzari dagokion hizkia eta asmatuko duzu.

Nabaritu duzu prezioen igoera?

JON PONCE
ALGORTA

Bai, batez ere, supermerkatuko produktuetan, kotxeko erregaiaren prezioan eta etxeko gasaren fakturan nabaritu dut. Egia esan, itxura guztia dauka bere horretan jarraituko dutela eta oraindik gehiago igoko direla; batek daki noraino heldu daitezkeen.

AINARA ZARRAGA
ALGORTA

Nik adibidez, okindegian egiten dut lan eta ia egunero igotzen dute prezioa; orain bost zentimo jaitsi dute BEZagatik, baina lehen 20 igo zuten. Gainera, guk hori erabaki ez arren, aurpegia eman behar dugu bezeroak kexatzen zaizkigunean, eta geroz eta gehiago kexatzen dira.

OLATZ IZQUIERDO
ALGORTA

Bai, asko nabaritu dut. Lehen erosketetarako gastatzen nuen diruagaz orain gauza gutxiago eros ditzaket; gehiago gastatu behar dut berdina erosteko. Uste dut igoera gutxika izan dela, baina puntu batera helduta, pasatu egin direla iruditzen zait; gehiegizkoa izan da eta ez da bidezkoa.

LEIZE TELLEZ
ALGORTA

Bai, asko nabaritu dut orain dela gutxi BEZa kendu duten arren. Prezioak aldez aurretik igo zituzten, asko gainera, eta beraz, orain ia ez dugu nabaritu beherakada hori. Uste dut gasolioa eta lehen mailako produktuak ere garestitzen jarraituko direla, ezer erosi ezin dugun arte.

MARIBEL ARDANZA
ALGORTA

Astero egiten dut erosketa eta nabaritu dut asko igo direla prezioak: lehen, 200 euro ordaintzen nituen eta orain berdinagatik 250 ordaintzen ditut. Berbarako, nik bizkotxo asko egiten ditut eta azukrearen prezioa asko igo dela nabaritu dut, agian 50 zentimo gehiago.

LUIS MARI SOBREVILLA
ERANDIO

Bai, batez ere oinarrizko produktuetan: fruta, ogia, barazkiak, esnea, olioa, haragia... Oro har, denean igo dira prezioak, gutxika-gutxika, baina etengabea izan da garestitzea. Nik uste dut topera heldu dela, ezin daiteke igotzen jarraitu, ezin daitekeelako jasangarria izan.

DANI ORTEGA CALAFELL
ALGORTA

Bai, asko nabaritu dut. Orain, arrautza dozena bat eta esnea erostera bazoaz banku-abal bat eskatu behar duzu, kar kar kar. Agian ez da hainbesterako, baina bai, asko nabaritzen da. Nik, adibidez, haragia bi edo hiru euro garestitu dela igarri dut. Ezetz dirudi, baina nabaritzen da.

LOURDES SAN JUAN
ALGORTA

Bai, urtea bukatu baino lehen nabaritzen nuen, eta orain uste dut gehiago igo direla. Adibidez, orain, lau gauza erostera joan naiz eta ia 30 euro gastatu ditut. Gainera, uste dut igoera orokorra izan dela eta egunero erabiltzen ditugun produktuei eragin diela, eta, oraingoz, ez dira merkatuko.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa
Karpin Fauna ezagutu gura?

Karrantza Haranean, naturaren erdian, panterak, katamotzak, oreinak, kanguruak eta guanakoak zelatan daude zure zain. Zentro hori bisitatu gura duzu? Sarrera bikoitzak ditugu zuretzako!

Zozketa honetan parte hartu gura baduzu, otsailak 12a (domeka) baino lehenago bete zure izen-deiturakaz ZOZKETAK ataleko formularioa hiruka.eus webgunean.

Zozketa
Umeentzako liburu-sorta

Ibaizabal argitaletxearen eskumenez, 0 eta 5 urteko haurrentzako *Pixontzian* eta *Emozioak nonhai* liburuak gura dituzu? Bada, ez galdu aukera eta eman izena zozketa honetan!

Zozketa honetan parte hartu gura baduzu, otsailak 12a (domeka) baino lehenago bete zure izen-deiturakaz ZOZKETAK ataleko formularioa hiruka.eus webgunean.

Zozketa
***Yarin* dantza-ikuskizuna**

Jon Mayak zuzenduta, Kukai konpainiaren ikuskizun paregabeaz gozatzeko sarrera bikoitzak ditugu zozkatzeko. Saioa Muxikebarrin izango da, otsailaren 19an, 19:00etatik aurrera.

Zozketa honetan parte hartu gura baduzu, otsailak 12a (domeka) baino lehenago bete zure izen-deiturakaz ZOZKETAK ataleko formularioa hiruka.eus webgunean.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Matrikulatu zure seme-alabak eredu euskaldunetan

EUSKARA, gure etorkizuna

2 eta 3 urteko UMEEN AURREMATRIKULAZIOA: otsailaren 13tik 24ra

URTARRILAK 19

EUSKARAZ*
Romo ikastetxea (Romo) - 17:30

Haurtzaindegi-zerbitzua izango da

*Aldibereko interpretazio-zerbitzua

HITZALDIA

Denontzako eskola: Kulturartekotasuna, euskara eta bizikidetza

Hizlaria: Amelia Barquín López

OTSAILAK 1

EUSKARAZ*
Zabala ikastetxea (Algorta) - 17:30

Haurtzaindegi-zerbitzua izango da

*Aldibereko interpretazio-zerbitzua

HITZALDIA

Irakurle ona=ikasle ona

Hizlaria: Gorka Aurre Urtzaa

Mila esker Romo eta Zabala ikastetxeei lokalak uzteagatik
Nuestro agradecimiento a los colegios Romo y Zabala por ceder sus instalaciones

Antolatzaileak: Getxo bizi ezazu · egizu! · senDi Getxoko familietan euskara sustatzeko proiektua

Laguntzailea: Bizkaia foru aldundia diputación foral

Izena emateko eta haurtzaindegi-zerbitzua eskatzeko:
Para apuntarse y solicitar servicio de guardería: